

# EUSKARAREN HAUTEMATEA AZKOITIAN. HIZTUNA, GIZARTEA ETA HIZKUNTZA



Irudia: Udane Juaristi

## Hizkuntza Plangintza Ikastaroa

Sakontze egitasmoa

Naroa Olalde Artetxe

Tutore: Zesar Martinez

Eskerrak...

... Maxixatzeneko lagunei abentura honetan bidailagun izateagatik.

... Zesar Martinezi metodologiaren nondik norakoak zehazten laguntzeagatik.

... Olatz Olaso eta Abel Irizarri pistak emateagatik.

... eztabaida taldeetan parte hartu duten herritarrei bizipenak kontatzeagatik.

... Karmeleri lana orrazteagatik.

... ingurukoei pazientziagatik.

# AURKIBIDEA

---

- Laburpena
- Sarrera
- 1. Metodologia
- 2. Testuingurua. Azkoitia datutan
- 3. Azkoitia eta euskara. Datuetatik haratago
  - 3.1 Azkoitiko euskal hiztuna
    - Hiztun motak. Ikasketen teoritik Azkoitiko errealitatera
    - Hiztunon jarrera eta portaerak
  - 3.2 Gizartea. Azkoitiko herria
    - Arnasgune izatearen kontzientzia
    - Hizkuntzaren funtzioak
    - Gune sinbolikoa
  - 3.3 Hizkuntza. Euskara
    - Hizkuntzen prestigioa
    - Azkoitiko hizkera vs Euskara Batua
    - Azkoitiko hizkeraren pertzepzioa
    - Azkoitiko hitzak
    - Hitanoaren erabilera
- Ondorioak
- Oharrak
- Bibliografia
- Eranskinak

# LABURPENA

---

Lan honetan Azkoitian euskarak duen egoeraren argazki bat egiten ahalegindu gara.

Horretarako, lehenik eta behin, hizkuntzaren ezagutza eta erabilerarekin erlazionatutako hainbat datu batu ditugu.

Ondoren, datu horiek herritarrek eztabaida taldeetan esandakoekin eta Txepetxek eta Fishmanek hizkuntzen normalizazioaren inguruan landutako teoriekin uztartzen ahalegindu gara.

Horrela, Azkoitiko euskal hiztunek euskararen inguruan dituzten eta izan dituzten bizipenekin, pertzepzioekin eta kezkekin herrian euskarak bizi duen egoeraren marrazkia osatu dugu. Marrazkia osatzeko, hizkuntza komunitatea osatzen duten hiru elementuak hartu ditugu ardatz gisa; hiztuna, gizartea eta hizkuntza. Esparru bakoitzean herritarren hautemate, iritzi, jarrera eta jokaerak ezagutu eta jasotzen ahalegindu gara.

Herrian euskararen inguruan zernahi lan egin nahi duenarentzat oinarri bat osatzeko ahalegina izan da hau.

# SARRERA

---

Ikerketa lan honen helburua azkoitiarrek euskara nola hautematen duten ezagutzea da. Zer da euskara azkoitiarrentzat? Non erabiltzen dute? Zergatik? Ze leku betetzen du euskarak herritarren nortasunean? Galdera hauek eta antzekoak daude lan honen oinarrian.

Ikerketa egiteko kezka herriko euskara elkartetik sortu zen. Azkoitia herri euskalduna dela esan ohi da. Euskararen ezagutza %80 ingurukoa da, herriko haur guztiek D ereduan ikasten dute, nagusiki euskaraz bizi gara... baina hala ere, euskara elkartearen ustez kezkatzeko moduko hainbat kontu daude: herriko rock talde gazteek ingelesez abesten dute, liburutegian gehien mailegatutako liburuak erdarazkoak dira, egunkari irakurrienak gaztelaniazkoak dira, herriko tabernetan apenas entzuten da euskal musika, kalean gero eta euskara gutxiago entzuten da,...

Hasierako galderei erantzun eta herrian euskarak duen egoeraren marrazkia osatzeko lana hiru ataletan banatu dugu.

Lehenengoan, ikerketa egiteko erabili dugun metodologia azaldu dugu.

Bigarren puntuan, Azkoitiko datuak aztertu ditugu: biztanle kopurua, ezagutza eta erabilera datuak.

Hirugarrenean, datuetatik haratagoko irakurketa bat egiten ahalegindu gara. Euskarak Azkoitian bizi duen egoera aztertzen saiatu gara hiztuna, gizartea eta hizkuntza ardatz hartuta.

Hiztuna aztertzean, ikasketa prozesuak eta hiztun tipologiak aztertu eta zehazten ahalegindu gara. Ahozko erabileran euskaraz bizi gara baina bestelako erabileretan herritarrak nola moldatzen diren jakin nahi izan dugu. Honez gain, norbanakoen jarrera eta portaerak ere aztertu ditugu.

Gizarteari dagokion atalean, arnagune kontzeptuaren inguruan dugun pertzepzioetik abiatu eta euskarak herritarren bizitzan betetzen dituen funtzioak zehazten ahalegindu gara. Amaitzeko, herriko gunen sinbolikoaren inguruko irakurketa bat egin dugu.

Hizkuntza komunitatea osatzen duten elementuekin amaitzeko hizkuntzaren ezaugarrietan jarri dugu arreta. Gai honen inguruan herritarrek dituzten kezkak jaso ditugu: euskara batua eta Azkoitiko hizkera, hitanoa, herriko hitzak,...

Amaitzeko, ondorioetan, ardatz bakoitzean aurrera begira landu beharrekoak zehazten ahalegindu gara.

# 1. METODOLOGIA

Lehenago esan bezala, ikerketa hau Azkoitiko Maxixatzen Euskaldunon Elkartearen kezka batetik sortakoa da.

Euskara Elkarreak Azkoitiko herritarrek euskararen inguruan dituzten, kezka, iritzi eta bizipenak jaso, iritzi horiekin euskarak herrian bizi duen egoeraren argazki bat osatu eta aurrera begirako lan ildoak zehaztu nahi ditu.

Euskara elkartearen beharrei erantzun nahian, lan hau metodologia parte-hartzaileak erabiliz egin da. Ikerketaren protagonista nagusiak euskara elkarteko kideak izan dira. Beraiek zehaztu dituzte ikerketaren helburuak, martxan jarri beharreko dinamikak eta ikerketarekin lotutako beste hainbat xehetasun. Horretarako, ikerketa talde mistoa osatu da. Talde hau ikerlariak, lan honen egileak, eta euskara elkarteko beste lau kidek osatu dute. Kide guztiek ikerketaren dinamikan aktiboki parte-hartzeko konpromisoa hartu dute.


Ikerketa talde mistoaz gain, ikerketa zehazteko orduan euskara elkarteko gainerako kideek ere parte hartu dute. Ikerketa talde mistoak erabakitako pauso guztiak euskara elkarteko gainerako kideekin kontrastatu dira.

Ikerketa parte hartzaileek ezagutza eta ekintza uztartzen dituzte. Sakoneko helburua aktoreen praktika aldatzea edo hobetzea izaten da. Gure kasuan, euskararen inguruan lanean ari diren herriko eragile desberdinen artean, aurrera begira Azkoitian euskararen normalizaziorako landu beharreko lan ildoak zehaztea da ikerketaren azken helburua.

Beheko taulan laburbiltzen da helburu hori lotzeko emango ditugun pausoak eta kronograma

	Otsaila- martxoa	Apirila- Maiatza	Ekaina- uztaila	Iraila	Urria
• Ikerketaren planteamendua. Zer, nola eta noiz egingo dugun zehaztea					
• Informazioaren biltzea					
• Informazioa aztertu eta txostena idaztea.					
• Txostena aurkeztea. Txostena ikerketan parte hartu duten herritarrei eta euskararen inguruan lanean ari diren gainerako eragileei aurkeztea (euskaltegia, ikastetxeak, Udala,...).					
• Aurrera begirako lan ildoak zehaztea.					

Beheko irudian laburbiltzen dira ikerketa metodologia parte hartzaile baten prozesuak dituen momentu edo ziklo nagusiak.



1 irudia (1)

HIZNETeko sakontze egitasmo honek ikerketaren lehen zatia jasotzen du, goiko irudiaren lehenengo bi zutabeak. Esku artean duzuen diagnostikoaren txosten irekiaren zati bat izango litzateke. Aurrerantzeko lanak izango dira txotena osatzea eta herritarren artean eta herriko eragileen artean azaltzea eta aurrera begirako lan ildoak zehaztea.

Lehenago esan bezala, hasierako kezka oinarri hartuta, elkarteko hainbat kidek ikerketarako lantaldea osatu genuen. Lantaldearen lehenengo lana ikerketaren helburua eta lagina zehaztea izan zen. Aipatu dugun bezala, lanaren helburua herritarrek euskarari ematen dizkioten funtzioak argitu eta euskararen inguruan

dituzten kezka edo gabeziak jasotzea izan da. Helburua argitzeak lagina zehazteko ere balio izan zigun. Ikerketa honetan Azkoitiko euskal hiztunen iritziak aztertu ditugu. Euskal hiztunak baitira euskarari funtzioak eta balioak ematen dizkiotenak.

Ikerketaren helburua eta lagina zehaztutakoan, lantalde honen egitekoa izan da eman beharreko pausoak eta metodologiak zehaztea.

Azkoitian euskarak duen egoeraren ahalik eta argazkirik errealena egiteko herriko euskal hiztunen iritziak, kezka eta bizipenak jaso nahi genituenez, hori egiteko biderik eraginkorrena herritarrei galdetzea izango zela erabaki genuen. Horretarako teknikarik egokiena eztabaida taldea zela pentsatu genuen. Eztabaida taldeen helburua gai baten arlo garrantzitsuenak ezagutzea da, gai horren inguruan taldekideen artean egon daitezkeen ikuspuntuak ikertu eta adostasun eta desadostasunak aztertzea. Euskara elkarteak lortu nahi duena lortzeko bide egokia zela pentsatu genuen.

Eztabaida taldeak zehazten hasi ginenean arazo edo zailtasun batekin topo egin genuen. Eztabaida taldeak adin tarteka banatzen bagenituen hamar bat eztabaida talde egin behar genituen, eta hori egiteko ez genuen denbora eta baliabide nahikorik. Gure gaitasunak kontuan hartuta herritarren iritzia jasotzeko bi bide erabiltzea adostu genuen. Eztabaida taldeak eta inkesta.

1. Eztabaida taldeak. 18 urtetik gorako herritarrekin 8 eztabaida talde egin ditugu.

Euskararen inguruan herritarrek izan dezaketen diskurtsoa definitzeko aldagai erabakigarrienak adina eta etxeko hizkuntza direla iruditu zitzaigun. Hori kontuan hartuta, honako eztabaida talde hauek osatu ditugu:

- ET1: ama hizkuntza euskara izan duten 18-29 urte arteko azkoitiar euskaldunak.
- ET2: ama hizkuntza erdara izan duten 18-29 urte arteko azkoitiar euskaldunak.
- ET3: ama hizkuntza euskara izan duten 30-45 urte arteko azkoitiar euskaldunak.
- ET4: ama hizkuntza erdara izan duten 30-45 urte arteko azkoitiar euskaldunak.
- ET5: ama hizkuntza euskara izan duten 46-60 urte arteko azkoitiar euskaldunak.
- ET6: ama hizkuntza erdara izan duten 46-60 urte arteko azkoitiar euskaldunak.
- ET7: ama hizkuntza euskara izan duten 61-80 urte arteko azkoitiar euskaldunak.



- ET8: ama hizkuntza erdara izan duten 61-80 urte arteko azkoitiar euskaldunak.

Eztabaida taldeak bi egunetan egin genituen, maiatzaren 21ean eta 28an. Lehen egunean ama hizkuntza euskara duten azkoitiarrak elkartu genituen. Bigarrenean, berriz, ama hizkuntza erdara dutenak. Eranskinetan gehitu dugu eztabaida taldeetan erabili genuen gidoia.

Eztabaida taldeetan, guztira, 57 lagun elkartu ginen. Talderik jendetsuenean 11 lagun elkartu ziren eta gutxien egon zirenean 5. Taulan honetan zehazten da talde bakoitzean elkartu ginen kide kopurua.

<b>Eztabaida taldea</b>	<b>Kide kopurua</b>
<b>ET1</b>	11
<b>ET2</b>	5
<b>ET3</b>	8
<b>ET4</b>	5
<b>ET5</b>	8
<b>ET6</b>	6
<b>ET7</b>	9
<b>ET8</b>	5

2. Inkesta. 18 urtetik beherakoak eztabaida taldeetatik kanpo geratu zirenez, 16-18 adin tartean dauden herritarren iritziak jasotzeko inkesta bat pasatzea pentsatu genuen. Inkesta hau lehen eta bigarren mailako Batxilergoan eta formazio zikloetan dauden ikasleei pasa zaie.

Inkestarekin gazteen hizkuntza kontsumo ohiturak eta euskara erabiltzeko joerak zein diren jakin nahi izan dugu. Horrekin batera, euskal eta erdal sortzaileen inguruan duten ezagutza eta hizkuntzen inguruan duten jarreraren inguruan ere galdetu diegu.

Inkestan ateratako emaitzak ikastetxeko euskara arduradunarekin aztertzeko asmoa dugu, 16-18 adin tartean dauden gazteen erabilera ohiturak aztertu eta aurrera begirako lan ildoak zehazteko.

Txosten honetan ez ditugu inkestako emaitzak jaso, emandako iritziak oraindik guztiz aztertu gabe ditugulako.


Informazioa biltzeko metodologia zehazteaz gain, ikerketa talde mistoaren egitekoa izan da inkesta eta talde eztabaidetako gidoia diseinatzea, inkestak pasatu eta prozesatzea, eztabaida taldeetako kideak zehaztu eta parte hartzera gonbidatzea, eztabaida taldeak dinamizatzea eta transkribaketak egitea.

Aurrera begirako lanak, berriz, honako hauek izango dira:

- Diagnostikoaren txosten irekia osatzea. Inkestetako emaitzak eta txosten honetan esandakoak bateratzea.
- Txosten irekia herriko eragileei eta herritarrei azaldu eta beraiekin eztabaidatzea.
- Aurrera begirako lan ildoak zehaztea. Euskararen egoera normalizatzeko zer egin beharko genuke, zer egin dezakegu Azkoitian? Herrian euskararen inguruan lanen ari diren eragileen artean ekintza plana zehaztu eta lanak banatzea.
- Plana indarrean jarri eta ebaluatzea.

## 2. TESTUINGURUA. AZKOITIA DATUTAN


Azkoitia, Gipuzkoan, Urola bailaran kokatutako 11.300<sup>(2)</sup> biztanle inguruko herria da. Biztanleak adin taldeka banatuz gero, biztanle gehienak 30 urtetik gorakoak direla ohartuko gara.



Iturria: Azkoitiko udal errolda (2010)


Azkoitiko biztanleen hizkuntza gaitasuna aztertzeko ditugun azken datuak 2006koak dira. Garai hartan 2010ean baino 600 lagun gutxiago bizi ziren Azkoitian. Hala ere, 2006ko datuek herriko egoeraren argazki bat osatzen lagunduko digute.

2006ko datuei erreparatuta, garai hartan, herriko biztanleen ia %78 euskal hiztuna zela ikusiko dugu.




Iturria: Biztanleria zentsua 2006 (EUSTAT)

Azken bi hamarkadetako hizkuntza gaitasuna aztertuz gero, 2001etik 2006ra, gutxi bada ere, euskaldun kopuruak behera egin zuela ohartuko gara. Epealdi honetan, ia erdaldunen multzoa %2 hazi zen eta erdaldunena %1. Azken hamarkadan herrira etorri den etorkin kopurua egon daiteke datu hauen atzean.




Iturria: Biztanleria zentsuak 2006 ([EUSTAT](#))

Ama hizkuntzaren datuak ikusiz gero, ohartuko gara 2006an Azkoitiko biztanle gehienek ama hizkuntza euskara zela. Hala ere, azken hamarkadan datu hau ere beherantz joan dela ohartuko gara. Ama hizkuntza euskara dutenen kopurua hizkuntza gaitasuna jaitsi zen maila berean jaitsi zen 2001etik 2006ra.



Iturria: Biztanleria zentsuak 2006 ([EUSTAT](#))


Etxean hitz egiten den hizkuntza aztertuz gero ondorio berera iritsiko gara. Azkoitiar erdiek baino gehiagok etxean euskaraz hitz egiten zuten 2006an, baina zenbatekoa hamar puntu jaitsi zen sei urtetan.



Iturria: Biztanleria zentsuak 2006 ([EUSTAT](#))


Unibertsitate aurreko ikasketetako hizkuntza erduei dagokionez, 2000. urtetik aurrera Azkoitiko haur guztiek D erduan egiten dituzte unibertsitate aurreko ikasketa guztiak. Beraz, gaur egun 11 urte baino gutxiago dituzten haur guztiak euskaraz eskolatu direla esan dezakegu.

Beheko grafikoan ikus dezakegun bezala, 2000. urtera arte Azkoitiko ikastetxeetan eskolatutako haur gehienek D erduan egiten zituzten beren ikasketak. Urte horretara arte B erduan ikasten zuten ikasleen kopurua ere kontuan hartzekoa da, ordea, %30 inguruk eredu horretan ikasten baitzuen.



Iturria: Biztanleria zentsuak ([EUSTAT](#))

Kale erabilera datuak kontuz aztertu behar ditugu. Azkoitiko datuak bakarrik aztertzen baditugu, 2001etik 2006ra euskararen erabilera gorakada bat izan zela ikus dezakegu. Hala ere, datu hauek ez dira oso adierazgarriak. Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herriko Kale Neurketan jasotako datuak dira eta ikerketa horretarako oso lagin txikia jasotzen da udalerrian. Dena dela, ideia bat egiteko lagungarri izan daitezke.




Iturria: Euskal Herriko Kale Neurketak. Soziolinguistika Klusterra

KALE ERABILERA DATUAK AZKOITIAN				
Neurketa	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
1989	%75,4	%68,4	%69,7	%84,5
1993	%94,6	%60,7	%72,1	%74,6
1997	%83,0	%68,2	%71,7	%77,4
2001	%78,5	%61,3	%61,5	%75,8
2006	%87,1	%63,8	%62,4	%67,3

Iturria: Euskal Herriko Kale Neurketak. Soziolinguistika Klusterra

Azkoitiko erabilera datuak adinka aztertzen baditugu 2001etik 2006ra hauren arteko erabilera nabarmen gora egin zuela ohartuko gara; ikastetxeetan D eredu bakarrik ematearen eragina izan daiteke. Bestalde, adinekoen artean ere beherakada nabarmena izan zuela konturatuko gara. Adineko euskaldunak hil eta garai batean Espainiatik etorri eta euskaldundu ez ziren herritarrak zahartu izanaren ondorio izan daiteke.


Urola-Kostako datuak hartzen baditugu, berriz, 2001etik 2006ra gorakada bat nabari bada ere, 1993tik onartzen euskararen kale erabilieran aldaketa gutxi izan dela ikus dezakegu. Kasu honetan ere, 2006ko datuak ez dira oso adierazgarriak. Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herriko Kale Neurketan jasotako datuak dira eta ikerketa horretarako oso lagin txikia jasotzen da udalerrian.



Iturria: Euskal Herriko Kale Neurketak. Soziolinguistika Klusterra

Kale Neurketako 2001eko datuak adinaren arabera sailkatzen baditugu, ikusiko dugu urte horretan Urola-Kostan haurrek erabiltzen zutela euskararik gehien. Ondoren gazteek eta adinekoek, eta gutxien helduek. Azkoitiko datuetan eta Gipuzkoa eta Euskal Herriko datuetan ikusten den joera bera nabari da.

Hala ere, Urola-Kostako datuak Gipuzkoakoekin eta Euskal Herrikoekin alderatzen baditugu, 2001ean inguru honetan erabilera besteetan baino handiagoa zela ohartuko gara.




Iturria: Euskal Herriko Kale Neurketak. Soziolinguistika Klusterra


Herritarren kontsumo ohituen berri izateko 2010ean zehar liburutegian maileguan hartutako liburuak aztertu ditugu. Datu hauetan era alde handia



nabari da haurren eta helduen artean. Haurrek mailegatutako liburuen erdia, %54, euskarazko liburuak dira. Helduen artean, berriz, euskaraz mailegatutako liburuak ez dira %20ra iristen.



Iturria: Azkoitiko liburutegia



Iturria: Azkoitiko liburutegia


### 3. AZKOITIA ETA EUSKARA. DATUETATIK HARATAGO

---

Aurreko ataleko datuak ikusita, ezagutza eta ahozko erabilerari dagokionean Azkoitia herri euskalduna dela esango genuke. Baina datu hauen ondoan liburutegiko maileguen datuak ikustean Azkoitiko euskararen erabilerak zenbait pitzadura dituela suma daiteke.

Lanaren puntu honetan Azkoitiko euskararen hizkuntza komunitatea aztertzen saiatuko gara. Horretarako, herritarrek eztabaida taldeetan esandakoak aztertu eta datuetatik haratagoko irakurketa egingo dugu.

Hizkuntza komunitatea hiztuna, hizkuntza eta gizartea lotzen dituen unitate soziala da Txepetxen teoriaren arabera.



Datuetatik haratagoko irakurketa honetan, hiru aldagai hauek bakoitza bere aldetik aztertzen ahaleginduko gara. Baina batetik besterako mugak oso lausoak dira eta hiru aldagaiak elkarren eraginpean daudenez ez da batere erraza bakoitzaren ezaugarriak zehaztea.

Lehenik eta behin hiztuna aztertuko dugu. Azkoitiko euskal hiztuna nolakoa den zehazten ahaleginduko gara Txepetxen ikasketa teoria oinarri hartuta. Hiztunaren jarrera eta portaerak ere aztertuko ditugu atal horretan.

Ondoren gizartera salto egin eta arnagunearen kontzeptutik abiatuta, euskarak Azkoitian betetzen dituen funtzioak eta gizarte sarean dituen hutsuneak aztertzen saiatuko gara. Zertarako erabiltzen dugu, herri mailan zerk kezkatzen gaitu, beste herriekin alderatuz nola ikusten dugu gure burua,... Herrian hizkuntzaren gune sinbolikorik baden edo ez argitzen ere saiatuko gara.

Amaitzeko, hizkuntzan jarriko dugu arreta. Atal honetan euskara batuari eta Azkoitiko hizkerari ematen dizkiogun erabilerak, herriko hizkeraren ezaugarriak eta erabiltzen dugun euskararen inguruan ditugun kezka aztertuko ditugu.

### 3.1.- AZKOITIKO EUSKAL HIZTUNA.

Azkoitiko hizkuntza komunitatea aztertzeko lehenik eta behin hiztuna aztertuko dugu. Hitzunaren ikasketa prozesua eta euskararekin dituen jarrera eta portaerak ikusiko ditugu. Bi ideia hauek herrian izan ditzakegun hutsuneak detektatzen lagunduko digute.

#### **Hiztun motak. Ikasketen teoriatik Azkoitiko hiztunen errealitatera.**


Puntu honetan eztabaida taldeetan parte hartu duten kideek euskara ikasteko bizi izan duten prozesua aztertuko dugu Txepetxen hizkuntzaren teorian oinarrituta. Hizkuntzaren erabileran eragiten duen aldagaietako bat da hizkuntza ikastean bizi izandako prozesua.

Txepetxek osatutako ikasketen teoriaren helburua hizkuntza ikastean egiten den ibilbidea eta parte hartzen duten aldagaiak argitzea da. Ikasketen teoria aztertea baliagarria da gizabanakoen, taldeen, zein hizkuntzen egoera nolakoa den ikusi eta aztertzeko.

Hizkuntza bat oinarrizko hiru faktore hauengatik ikasten da Txepetxen arabera: motibazioa, ezagutza eta erabilera:

*“Entendemos por motivación las razones, deseos o intereses que mueven a aprender una lengua o a permanecer en ella, Entendemos por percepción la capacidad y el proceso de captar su funcionamiento. Y entendemos por ejercicio (o uso) la operación efectiva de usarlo en cualquiera de las funciones lingüísticas que la comunidad posee en un momento histórico concreto” (3)*

Txepetxek dioenez, hiru faktoreak elkartuta daude eta zirkuitu bat osatzen dute. Aldi berean, horietako bakoitza berezkoa ala induzitua –hausnarketaren bidez eragindakoa– izan daiteke. Horren arabera, bi ikasketa mota ditugu: ikasketa primarioa edo naturala –A ikurraz izendatua– eta ikasketa sekundarioa edo kulturala –B ikurraz–. Ikasketa primarioa haurtzarokoa da. Ikasketa horretan erabilera, ezagutza eta motibazioa berezkoak dira. Ikasketa sekundarioa, aldiz, nerabegarotik gorakoa da; kasu honetan, motibazioa, ezagutza eta erabilera induzituak dira. Zerbaitek bultzatuta hasten gara hizkuntza hori ikasten.



Egoera normalizatuetan pertsona gehienek hizkuntzaren bi ikasketa prozesuak betetzen dituztela dio Txepetxek: primarioa bizitzaren lehenengo urteetan eta sekundarioa edo kulturala hezkuntza sisteman. Horrela, hizkuntza batean hiztun osoa izateak esan nahi du hizkuntzaren pertzepzio bikoitza edukitzea dela batera: naturala eta kulturala. Hizkuntza horretako hiztun osoa AB motako hiztuna izango litzateke. Hizkuntza bigarren hizkuntza gisa ikasi duena berriz, BA, hots, aurrena ikasketa sekundarioa egin du eta gero naturaltasunez bereganatu du.

Talde mailara igarota, ikasketaren ikuspegitik bost talde soziolinguistiko bereizten ditu Txepetxek:

- AB: jatorrizko hiztun kulturizatuak
- BA: heldu bertakotak
- A: jatorrizko hiztun primarioak
- B: ikasten ari diren helduak eta gazteak, naturaltasunik lortu ez dutenak.
- O: hizkuntza ez dakitenak.

Azkoitiko hiztunen artean talde soziolinguistiko guztiak aurki ditzakegu. Euskara etxean jaso dutenen artean, bi motatako talde soziolinguistikoak bereiz ditzakegu:

- Jatorrizko hiztun kulturizatuak. Ikasketak euskaraz egin dituzten herritarrak egongo lirateke multzo honetan. Hauek, ibilbide osoa osatu dute euskaraz, eta beraz, AB motako hiztunak izango lirateke. Aurrerago ikusiko dugunez, ordea, erabilera kulturalari dagokionez zenbait hutsune nabari dira ikasketak euskaraz egin dituztenen artean ere eta AB ibilbidearen B osagaia zalantzarikoa izan daiteke.
- Jatorrizko hiztun primarioak. Ikasketak gaztelaniaz egin dituzten herritarrek osatuko lukete multzo hau. Etxean euskara jaso harren, herritar askok ikasketak gaztelaniaz egin zituen eta ez dira iritsi euskaraz AB ibilbidea osatzera. Euskaldun alfabetatu gabeak izango lirateke.

Pertsona hauek gaztelaniaz alfabetatu dira eta hizkuntza horretan osatu dute hizkuntzaren ibilbide kulturala. Euskaraz A eta gaztelaniaz B(A)<sup>(4)</sup> motako hiztunak izango lirateke.

Etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso dutenen artean lau talde soziolinguistiko bereiz ditzakegu:

- Heldu bertakotuak. BA tipologia. Etxean gaztelania jaso arren ikasketak euskaraz egin eta ondoren kaleko erabilera ere berenganatu dutenak izango lirateke.
- B motako hiztunak. Ikasten ari diren helduak eta gazteak, naturaltasunik lortu ez dutenak. Etxean gaztelania jaso duten herritar batzuk euskara ikastetxean edo euskaltegian ikasi eta euskaraz B izatera iritsi dira, baina ez dute ibilbide guztia egin eta euskaraz ez dute naturaltasunik lortu eta ez dira BA izatera iritsi.
- Jatorrizko hiztun primarioak. Euskara kalean ikasi dutenak. Euskara ez da beraien ama hizkuntza baina horrela izan dutenen antzeko bidetik berenganatu dute euskara. Herritar hauek ikasketak erdaraz egin dituzte eta, beraz, euskaraz ez dute ibilbide kulturalik egin. A motako hiztunak izango lirateke.
- Hizkuntza ez dakitenak (0 hiztunak). Eztabaida taldeetan parte hartu ez badute ere, datuetan ikusi dugunaren arabera herritarren %10 multzo honetan sartuko lirateke. Hiztun mota honek besteon erabilera baldintzatzen du neurri handi batean.

Baina goazen poliki-poliki, eztabaida taldeetan esandakoa oinarri hartuta, Azkoitiko hiztun motak aztertzea.

Euskara etxean jaso duten gazteek ibilbide guztia osatu dutela esan dezakegu. Euskara bide naturaletik ikasi dute lehendabizi, eta gero ikasketetan, ibilbide naturala osatu dute. Euskaraz AB hiztunak izango lirateke. Oro har, euskaraz idatzi eta irakurtzen eroso sentitzen dira.

- *Nei euskeraz idatzi eo erderaz idatzi berdin tzat.*
- *Erreztasun aldetik neire bai.*
- *Neire bai*
- *Nik euskeraz idaztet neuk aukeratzetelako. Baine eztet aukeratzten euskeraz euskeraz badakitelako ta erderaz ez.*  
(ET1)

Baina gazteen artean ere zenbait arlotan hutsuneak egon badaude.

- *Zeoze teknikue idazteakun, daukeun, azkenin daukezun bokabulaxue erderaz askoz zabalaue da euskeraz baino*
- *Hori bai, nike segun ze gauze idazteko ta...*

(ET1)

*Gurin eoteie hanka sartze bikainek (euskaraz idazterako orduan). Sk eta nahi dan bezela ta Htare bai baine ez gea kixkilloso jartzen oseake... (ET1)*

*Nei liburuk pasatze zat euskeraz idatzitte baldimao (...) ta itzulpenak... kostau zatxit batzu ta ... erderaze gustatzen zat letzie ta erderaz baldimao batte itzulpenak iziteie baine iruitze zat, errezo zea ettettut, ta badaude ondo itzulite euskeratutekuk baine erderaz baldimao berez inglesa baldima ta erderaz baldimao erderaz letzet. Gustatze zat euskeraze letzie baine askoz gutxixo letzet. Porke tokau xatxit batzuk goorrak hola ta euskeraz astune letzi baino, ezke disgustoa letzet ta ordun ba, amorrue hartzexot, ta nik nahi det euskeraz letzetanin ba euskera natula ta gustoa letzie liburue ordun ia aste mazea ta ia kostau ette baldimazatu... itzulpenakin da hor zea bat dauket gustako ziten askoz kalitate hobeo eukitzie. (ET1)*

- *Hitz batzuk beti erderakak ibiltzettozu o hori eztakit pixket ebitau ezine. Segun ze hitz euskeraz como que*
  - *Bai raruk sonatzebe batzuk bai*
- (ET2)

*Nik egixe esan idatziz erderaz hobeto sentitze naiz (ET2)*

Gazte hauetako batzuek, etxean euskara jaso dutenek (ET1), euskaraz AB ibilbidea osatuta dute, baina baieztapenetan nabari denez, ibilbide kulturalari dagozkion arlo batzuetan, hizkera teknikoa, idazmena, irakurmena,... hutsuneak nabari dira. Hutsuneak hizkuntzari egozten dizkiote, hiztegiarik ez egotea eta itzulpen kaskarrak aipatuz, baina benetako hutsuneak hizkuntzan baino hiztunengan daudela esango nuke. Euskara erabiltzen dugu, ezagutzen dugu baina ez dugu motibazio nahikorik ezagutzen jarraitu eta dakigun hori hobetzen eta aberasten jarraitzeko.

Etxean gaztelania jaso eta euskararekin BA ibilbidea osatu duten gazteen (ET2) artean ere hutsuneak daudela nabari da. Idazteko orduan gaztelaniaz erosoago sentitzen dira eta erdarakadak erabiltzen dituztela diote. Kontrako bidean, adierazkortasunari dagokionean, gaztelaniaz ere gauza bera gertatzen zaiela sumatzen da. Hizkuntza horretan ere hutsuneak dituztela adierazten dute. Kasu honetan, gaztelania gutxiago erabiltzeak hizkuntza horretan duten ezagutza kamustu diela esatera ausartu gaitezke.

*Azkenin hori nahi nun esan, azkenin ba nik ama hizkuntzie erderie dauket, baino nik ikisi ia oin dala urte batzuk, ordun leno*

*erderaz pentsatze nun ta ia eztaikit egun batetik bestea hasi nitzen euskeraz pentsatzen ta nik euskeraz pentsatset oin ta nik erderaz eztaet esango, por supuesto, nik ondo hitzeittet baine galdu ein det, nik ikustet batzutan, ostia solturie iguel falta, joe ba eztaet esango leno baino geizkixo hitzettetanik baine iguel batzutan izetea ba, si pues ta hola, pixket. Euskaldun eztaikit, ama hizkuntzie euskerie daukeben jendiei pasatze zaizkon gauzak pasatze zatxitela nei ta por supuesto ondo ettetela nik erderaz, beno ondo bai, ondo ettetela erderaz baine ikustet, hori ikustet eztaikit. (ET2)*

Adinean aurrera joan ahala txikitán izandako irakaskuntza ereduaren eraginak nabarmenagoak dira. Etxean euskara jasoagatik euskaraz AB ibilbidea egitera iritsi ez direnak asko dira. Pertsona hauek gaztelaniaz osatu dute hizkuntza ikasteko ibilbide kulturala. Euskaraz A(B) motako hiztunak izango lirateke. Euskaraz irakurri eta batik bat idazteko orduan hutsuneak dituzte. 30 urtetik gorako herritarren artean, eztabaida talde guztietan ageri den kontua da. Herritar hauen artean ahozko erabilera handia da, baina, idatzizkoa nabarmen jaisten da. Zergatien artean, beraiek onartzen duten bezala, ikasketak erdaraz egin eta euskaraz ibilbide kulturala osatu gabe izatea dago.

*Gero bestie da lanin zuk euskerazko komunikazixue eduki arren zemaít lankidekin idatziz ba zuk korreo elektronikue euskeraz ettezu baine zemaít jendek ezin dizu erantzun euskeraz nahiz eta euskaldune izen. Hori berrogei urtetik gorako jendin artin erabat ikustea ta azkenin... (ET1)*

*Bai, neurire kuriosue ette zat, ama ta atte erderaz bueno aztarran pitoik ez esateko, ta nota bat laga ber baldimaxobe alkarrí zeoze “saca el boton no se que” eo holaxe, ezke eztaikibe, hori irutize zat e... (ET1)*

*Nere amamake ez ta idazten justu-justu daki, eskolare etzan jun ta, idazten da erderaz idazteu.(ET1)*

*Hemen batzuk euskeraz ikasi zenuten, zuek ikastolako zeate ez, gu mojan adibidez, ta nik oindik erderaz irakurtzet, eta bi dokumentu hartu euskeraz ta erderaz eta nik erderaz irakurtzeiat, erreztasun.. eta nik hori usteiat eskolako zea hori.. bai (ET3)*

*Nei irutize zat lanien ja ber dezula ja hiztegi espezfiko bat, ber dituzula eta geo zeinekin zauden etab. eta lanien ja oaindiken e mestizaje haindixe bihurtzea mestizaje haundixe dao . Nei gertaze zat hizkuntza tekniko baten falta bat, nik somatzek, ordun errezo eittet, ni florian ibilitekue naiz, eztaikit hortiken*

*datoren baina nik sentitzet falta bat, gero axaleko gauzek , ba esan nahi dizut ba bazkaltzen eo lagunartin ba , hor lehenengo hitze euskeri mantetzen deu eta , topatzezu zure zea, euskerik eitteu zeure taldie osatzie ta, mantentzezu baine laneko gaixek, laneko bilerak , laneko zeak nik normalien erderaz. (ET3)*

*Nik antzematetan faltie, nire umikin eotenaun eta guk ikasi gendun dana euskeratute oin bere hiztegixekin eta , ni galdu ittenaun hor, biderkaketak eta, ni hor galdu eittenaun (ET3)*

*Ta karreran numeruk e erderaz ta euskera pasatzeko ostra zea in ber (ET3)*

*Duela gutxi ikastaro batera joan nitzen beste bi euskaldun zaharrekin, haiek papera erderaz bete zuten eta nik euskaraz. Zergatik ari zeate erderaz? Eta euskaraz idaztea zaila dela esan zidaten. (ET4)*

*Nire gizona euskaldun zaharra da baina asko kostatzen zaio euskaraz idaztea. Irakurri idatzi baino hobeto, baino irakurri ere gaztelaniaz errazago. Beharra dauka alfabetatzeko biana hori norlamaltzat ematen da hemen. (ET4)*

*Guk daukeun, edade batetik aurrea eskolan ikisi ez badek... (ET5)*

*Radiyukin ta telebisiyukin ta eztao problemaik (ET5)*

*- Neri konkretamente, nere kasu dek, ikisi giñean erderaz, ta nahiz ta gure hizkuntze ama eo esateana, lengua madre, euskerie izen, ba, gauz konplejuk esateakun ta ikisteakun ta ein diau dana erderaz, ordun klaro gauze konplejuk ta zailek eta ein ber dittounin esan, esan ber dittounin ta pentsau ber dittounin ba askotan erdera jotzeiau ez? Ta nei askotan hori gertatze zitek. Zemattekin gauze zallek ta gauze konplejuk esan ber dinin erderie askoz e hobeto manejatze nauk ta ordun klaro, erderaz.*

*- Gai bat sakondun ber danien da. (ET5)*

*- Periodiko danetan da kronikak eta ta, jo letuko nitxokek baine denborie ber diat.*

*- Bi aldiz letu ber.*



- Oin ikastolatan da ikasten ai dizenak euskeraz ikisten ai dizenak. Hoxek alderantziz pasako zikok. Hoxek euskeraz irakurrikoibe ta euskeraz errezo espresako ttuk, zea baiño, erderaz baiño. Guk ze konplejo jartzettoun ta. Zeatik? Ba hoxe burue hortxe hasi zakulako. Guri, gure jenerazixue hola jungok.

(ET5)

nik neuk euskeraz letzet e? baine erderaz ondun eukitte horrek seguridade bat emateu beti.(ET5)

Motza baldima ta launei eo semiei eo einber baldimaxok ettexok. Hik euskeraz nola esatean halaxe eskribiu ta ba hola ettek baine luzi baldima, ya gexo, esplikazixo gexo... (ET5)

Erderaz ertetzeizu. (ET5) (idatzizko erabilera)

- Bankotikene elkarrizketa bat etortze maldima askotan ze hitz!
- Guk eskolan, guk asignatura libre emate giñean euskerie.
- Gu ezta, ez giñen allau hori emateare.

(ET5)

askotan bi aldiz letu ber gauzek ondo entenditzeko (ET5)

nerre gizona baserrikue da ta harek e nahixo du erderaz letu.  
(ET6)

Idazten da ez, idazten gu analfabetuk (ET7)

Gure problemie izendek batizpat irakurtzen ta idazten ta klaro hori ez giñean ikixi. (ET7)

Gure denborakuk hoxe daukeu akats bat, nerretzat, gu nola euskeraz hasi, euskeraz gauze hoxe danak eta etxine giro hortan bizi izen gea beti ta irakurri bai baine idazten ez, idazten ez, ta gero lotsa horreatikene bai askotan ezteu, eztixou zea etten, geure artin tartin bai ta txiki-txikittetiken idatzi deu baine zeuk nola ette, nola hitzette zenun era harta idatzi dana. Ta oin beste erabatea nola dauden gauze hoxek semattekin etteko etzea ausartzen eta beste gauze bat, nola txikitten erderaz ikisi genun materixe ta gauze oxe danak gure burun sartu zan erdera hori gauze askotan. (ET7)

Nahiz eta gutxi izan, eskolaz kanpo edo gero euskaraz alfabetatzeko ahalegina egin eta euskaraz AB ibilbidea osatutako hiztunak ere egon badaude:

*Nik hamalau urte neuzkela, Frankon garaxe zan, Esklabatan euki genun suertie Axpittiko monja bat zeuen, hermana Lurdes, ta harek zapatotan jute giñen, nahi izite genunak, materiala Bilbotiken ekartze zun ta nire aurreneko kili-kilik. Euskeraz idazteko ta harekin.(ET5)*

- *Alfabetatzen hasi giñenien, geuk ikisi, bestiei eman... alfabetatzen hirurogeita lauin.*
- *Bai, baine hori sektore batzutan bakarriken, generalitzatzeko.*
- *Ordun hazixe botatzen hasi ta.*
- *Gu Axkottixen alfabetatzen zemat hasi giñen ba? zuen atte, ama, gu geuk ikisi zean bitterten Irigarai ta Joxemari Iriondo ta hauen bittertez Zestun ta gero Axkottixen alfabetatzen ta eskola profesionalin hasi giñenin ta gero beste taldie hasi giñenin ta hori hirurogeigarren hamarkadan hasi giñen, Rikardo Arregi ta.*  
(ET7)

Eskolan ikasi ez arren eta alfabetatzeko ikastaroetara ere joan ez diren arren, euskaraz irakurri edo idazteko egindako ahalegina eta esfortzua aipatzen dutenak ere badira.

*eskolan da ikisi dek erderaz ordun ia gero erreztasun hori erdera jotzeko ta gero ez baldima etten esfuertzue euskeraz letzen eo irakurtzeko eo ba ordun jutezak automatikamente erderazkoa jute haiz (ET5)*

*Nik e ia liburuk eta euskeraz hasita nao letzen, baine hoxe, esfuertzo geyo einber (ET5)*

Etxean erdara jaso eta euskara gero ikasi dutenen artean denetarik aurkitzen dugu. Gazteen artean, lehen ikusi dugu, etxean gaztelania jaso arren, 18-30 urte arteko gazteek eskolan ibilbide kulturala osatu dutela. Gazte hauek gero, kalean, ibilbide naturala osatzera ere iritsi dira. 30 urtetik gorakoen artean denetarik dago. Batzuk euskara euskaltegian ikasi eta kalerako jauzia oraindik egin gabe dute, B motako hiztunak izango lirateke. Pertsona hauei ibilbide naturala osatzea falta zaie.

*Nik dana euskaltegian, baina kaleko euskerie ez dut ulertzen (ET6)*

*Hemengo euskara oso itxia da. Guretzat oso zaila da ikasteko. (ET4)*

Euskara kalean ikasi dutenek, etxean jaso dutenen hutsune berberak dituzte. Euskara ibilbide naturaletik ikasi dute, baina, ibilbide kulturala gaztelaniaz egin dute. A motako hiztunak izango lirateke, euskaraz alfabetatu gabeak.

*Erderaz (idatzi), ta leture , leture erderaz errezo. Askotan pasa ta, ELAko boletine iguel etorri eta pasa. Baino bixeta etortzenma (ET6)*

*Oin txarrena daukeuna da umik eta beste modu batea etortzeie ikisite (Euskara Batuari erreferentzia) ta oin haxeie re entendiue ein ber ta haxenare ikisi ein ber guk. (ET8)*

*Eskolan ikisi bagenun erakutsiko ziuben letzen baine nola kalin ikisi deun, ordun gero guretzako letzie oso zaile da. Por que kalin ikisi deu te. Ta inok ez tiu erakutsi. Letzen erakutsi ein diube erderaz, ordun badakizu erderaz letzen. (ET8)*

Adierazpen hauek guztiak kontuan hartuta, esan dezakegu, 30 urte baino gehiago dituzten Azkoitiko biztanle askok, kopuruz herritarren gehiengo, ez duela hizkuntzaren ikasketa prozesua amaitu. Euskara etxean jaso edo kalean ikasi dutenek hizkuntzaren ibilbide kulturala osatu gabe dute. AB zirkuitua itxi gabe dute. Horrela, euskaraz idatzi edo irakurtzeko orduan edo eguneroko funtzio guztiak (lan mundukoak bereziki) euskaraz egiteko orduan zailtasunak edo hutsuneak dituztela ageri da. Euskaltegian ikasi dutenei, berriz, ibilbide naturala osatzea falta zaie.

## **Hiztunen jarrera eta portaerak**

Ikusi dugun bezala, bizi izan dugun ikasketa prozesuak eragina du gure erabileran. Ahozko erabileran arazorik izan ez arren idatzizkoan hutsuneak izan ditzakegu ibilbide kulturala osatu gabe dugulako; edo alderantziz, ibilbide kulturala egina izan arren, naturala osatu gabe izateak gure ahozko erabilera muga dezake. Prozesu honek hiztun gisa ditugun jarrera eta portaeretan ere eragina izan dezake.

Eztabaida taldeetan behin baino gehiagotan azaldu den ideia izan da erdaldunekin edo erdaldun hustekoekin erdaraz egiteko dugun joera. Horren atzean arrazoi bat baino gehiago egon daiteke. Azkoitian herritar guztiok elkar ezagutzen dugu eta pertsona bat erdalduna zenean ezagutu izan baduzu gero kosta egiten da ideia hori aldatu eta pertsona horrekin euskaraz egitea. Bestea gaizki ez sentiaraztea, erdaldunenganako errespetua edo esan beharrekoak azkarrago esatea bezalako arrazoiak aipatu dira portaera hau justifikatzeko orduan.

- *Ta azkenin beaxek moldau berrin gureana,*
- *Gu moldatze gea beaxena, gea eskuzabalegixek.*  
(ET1)

*Azkenin pertsonak die ta esatezu, bueno ba ze eingot ba, ez hitzein ta guk euskeraz ta gaizki sentiuarazi... ta azkenin esatezu ez geo hartan hasiko baine iguel einberko genuke, eztakit. (ET1)*

*Hemen nere ustez geizki ette deu ta nik batte esatet eh, batzutan geizki ettetela, ohitturie daola erderaz ettebaizu erderaz ettie ta jakinde euskaraz dakila erderaz erantzutie, berez euskeraz dakila bestik ordun eztakit dao ohitturie erderaz ettebaizu erderaz erantzutie. (ET2)*

*Nik uste dek errexo jotze deula erderaz eittea, lenuo bukaukou eta erosuo sentitzen gea erderaz einda (ET3)*

*Igual esateizu estoy aprendiendo euskera ba nik errezteko erderaz eino zoat, aparte medikukin interesatze zakulako baitte gauzak garbi esatie eta geizki ez entenditzie, nik hori argi eta garbi (ET3)*

- *Hombre gero, lo que pasa que nik usteiat, gure herrixen danok ezautze geanak ta ibiltze geanak betiko jendikin ta errez ertetzeik ez (gaztelaniak)? Oin adibidez, euskaldun berri bat baldima ta ezpaldimakik beti hari lelengo erterie erderaz, hori. Ta gero ondotik aitzettuk ta beira euskera nola etteben ta.*
- *Bai ba, ezautu dittoulako beti erdaldun bezela. Baiba, askotan galdetu ettet nik, gero sorpresie euskeraz etteula ta gero ni hemen tontu bezela erderaz.*  
(ET5)

- *Neuri aste hontan pasau zitet (Herriko sendagile baten izena), matrimonixo edadetu bat huan, aurretik sartu ta atea erten tzixonin euskeraz bixei! Ta banekixean ibili zala ez? eta nahiko altu hitzette ziabean eta konbertsazixo dana, andrik dana euskeraz ette zoan eta bestike hala ez? Ta pentsau nian bueno. Ta nei berriz, bearek erderaz ette zik ta errezea ez?*
- *Ottu gealako beti halaxe.*
- *Beti halaxe bai, ta harentzate komoduo ta guretzate haure komodo eon daxen ez?*  
(ET5)

- *nik uste dut beraiekin (etorkinekin) hitz egitera erderaz egiten dugula.*

- *Con ellos hablamos erdera nosotros*  
(ET6)

- *Gu gaztik ginelare, kuadrilen da nahiku zan erdaldun bat etortzie etziun inok inposatzen baine geuk erderaz.*

- *Oaindikene bai.*

- *Batte inposau re. Edukazixo faltie dek eta honeatiken danok erderaz. Hemen inposaketie eon dek.*

- *Bai, nire ama zanak ala esate zun euskeriek edukazixue galdukoula. Euskeriek edukazixue galdukoik ze etortzek tipo bat ta hareatiken beste danok erderaz.*

(ET7)

*Guk zeatik ein izen dittugu adibidez hitzaldi publikotan. Badago ino euskeraz eztakinik? Ta bi laun zea ettemaie erderaz hitzaldixe eo. (ET7)*

*Bestie nik bizi izen detena da askotan nahi ez tetelare gainea re erten etten kanpotarren bat ikuste baldimat euskeraz hasi berrien eo zea, erderaz haste naiz. Ta gero konturatze naiz kanpotarra dala ta ein banixon euskeraz hartara ikisi eingo zian, gero konturatze naiz, gero konturatze naiz ordie. (ET7)*

*Harekin (euskara ikasten ari den sendagile bat) pasatzeana ordie ta neuri askotan, hastegea euskeraz ta ain zailtsune ikustexozu ba zeu erderaz haste zea. (ET7)*

Azkenengo adierazpenean ikusi dugun bezala, batzuetan, hizkuntza aldatuta geure buruarekin trankil geratzen gara, baina portaera horrek zer pentsatua ere ematen digu. Gorago hitzun batek aipatu duen bezala, hori eginda ez dute inoiz ikasiko, beti gu izaten gara beraienera moldatzen garenak,... horrelako jokaerekin deseroso sentitu ohi gara. Hizkuntza-mendekotasunezko portaerak adierazten dituzte baieztapen hauek. Gemma Sanginés eta Ferran Suay psikologoek ustez jokaera hauek norbanakoaren ongizateari eta identitate pertsonalari eragiten diote. Portaera hau ikasketetan izandako esperientziek zein berehalako erantzunetan izandako gertaerek baldintzatzen dute.

*Nik badauket bat koadrilen giro erdalduneko bat, (...) denok gea euskaldunek eta harek dauke giro erdaldunekue da baina euskeraz ikisi du, euskeraz ondo itzeitteu hala re nola txiki-*

*txikitatik guk Florian asko eitte gendun erderaz euskaldunen artien e nik beti hari erderaz eitte ixot eta beak .. nik badakit harek euskerie praktikatze ula beste batzukin baina beti ertetzeit zea harekin, ertetzeitit erderie .. txikittetiken halaxe ohitu gealako eta esatek e geizki, joe geure burui harrika ai gaittun ta hori geuk failatzeiñau (ET3)*

Herritarrak badakite zein garrantzitsuak diren norberaren jarrera eta portaerak. Lehen hitza euskaraz egiteak duen garrantzia aipatzen dute eta erdaraz egite horren atzean gure konplexuak edo gutxiespenak egon daitezkeela ere aipatzen dute. Lehen hitza euskaraz egite horretan zahar eta gazteen artean alderik antzeman duenik ere badago, eta hor ikasketen eragina nabarmena izan dela esango genuke.

*Nik jeneralien lelengo beti euskeraz (ET3)*

- *Leno re dendatan da iguel gaukegenun otturie zuzenin erderaz ta oin, euskeraz badakizu? Lelengo ta baldimaki ba bueno.*
- *Hori kanpun ta.*
- *Ez, ez, ez, hemene bai!. Hemene badaude erdaldunek ta galdetzezu euskaldune ta bai, ta hobeto harek eingoizu ta gutxi ta esateyot bueno nik euskeraz eingoizut zuk nabazu erderaz kontestau.*  
*(ET5)*

*Baine askotan egiten det Donostire jun eo medikuna ta lelengo hitze beti jakin gabe, beti erderaz ta tarteka tokatzea. Antzeman etteizube ta euskeraz. (...)Ustet hor konplejo bat eo eduki deula ez? Euskaldunon ez? Zeatik einberdiyot lelengo hitze eztakiten bati, oin ya eztet ezagutzen, lenego hitze erderaz? Igoal badaki ez? Esangoit eztakila eo nahiago duela beste... (ET5)*

*Nik oin ezta galdeture, lelengo hitze euskeraz, esan goitt ez baldimaki. (ET5)*

*Oin akatsik haundine nik ikustet askotan hemendik ertetzeuna gure ta gaztin artin gaztik juteie beste herri matea, taberna matea o ta euskerik ertetzexo haxe euskeraz hasi dilako, guri en cambio un cafe, buenas tardes, akats hori askotan.(...)Hori gure edadekutan gexo ikustet oin gaztie nik etxetik ikustet gaztie juteanin edozein tokittea euskeraz ettebe. (ET7)*

*Ni konturatze naun, kanpoa deitze badet almazen batea eo zer batea tapa, erderaz! ta gero nola ohitzean e bai e? beak esatemau diga? O tal? Esan? Eo esatemau ordun euskeraz zettun baine normalin erderara eta horire eztek ba. (ET7)*

Jarrera eta portaeren kontu honetan hautu kontzientearen ideia nabarmentzen da, nahita egin dute euskara erabiltzeko aukera. Pertsonaren baitan hizkuntza-egoeraren inguruko hausnarketa bat egin eta aukeraketa bat egin izana nabari da. Kontzientzia eta militantzia bezalako hitzak agertu dira adin tarterik zaharreneko taldean.

- *Kontzientzixe jarri ber,*
- *Hori esateizut ba, gogoratze zeanin zettun aldatze zu baine lelengotik, zea hoxek otturek hor sartute*
- *Nik neuk otturie dauket euskeraz*
- *Hala ber du. Bai be*
- *Ta gaiñea zea ettet e? jakiñin gainien*  
(ET7)

*ni aste nauk hi, garai baten (elkarte gastronomiko bai erreferentzia) aktak eta irakurtzen eta danak erderaz zaudek. Pixket oin dala urte batzuk zea ein giñean, hi euskeraz ein berkotxia ba? Eta urte gutxi ditttuk hasi giñela euskeraz. Zea militantzi hau eta konturatze hau eta kontzientziatze hau nahiko berrixe dala esango niki nik. (ET7)*

Norbanakook erdaldunekin eta ikasten ari direnekin ditugun jarrera eta portaerek euskarak gizartean betetzen duen funtzioan eragina dute. Herritar batek esan bezala euskaraz egiten ez badiegu inoiz ez dute ikasiko, ez dute beharrik sentituko eta inoiz ez dugu euskaraz bizi den gizarte sendorik osatuko.

## 3.2.- GIZARTEA. AZKOITIKO HERRIA

Hizkuntza komunitatean eragiten duen beste aldagaietako bat gizartea da. Hiztunak beste hiztunekin batera osatzen duten multzoa izango litzateke gizartea. Gure kasuan Azkoitiko herria, herritarren sarea, herrian parte hartzen duten talde, elkarte eta bestelakoak izango lirateke ikerketa honetan gizartea.

Azkoitiko gizartea eta herritarren sarea aztertzeko arnasmuneen kontzeptua, hizkuntzaren funtzioak eta gune sinbolikoaren kontzeptuak aztertuko ditugu.

### Arnasmuneak

Fishmanek azaldutako arnasmune kontzeptua honela definitzen du Mikel Zalbidek:

*Euskarazko arnasmunea, demografi aldetik euskara “bere habian” sentitzen den bilgunea da, inork xaxatu eta eraso gabe “etxeko jaun” sentitzen den eremua.* (5)

Zalbidek dioen bezala, gurea bezalako hizkuntza ahulek hain sarri sufritu behar izaten duten dislokazio fisikoari aurre egiteko bide bat dira arnasmune horiek.

Mikel Zalbidek (6) honako azalpenak ematen ditu arnasmuneen inguruan:

*Arnasmunean eta, oro har, demografi azterketan trinko diren euskal eremuen normalkuntza fisikoak, ezer esan nahi badu, zera esan nahi du: gutxien-gutxieneko oreka-modu bat lortzea ingurumen eta jardungune batzuetan euskara-erdaren artean, hesi moduko bat mantentzea. Eguneroko bizibide arruntean oinarri-oinarrizkoak diren esparru bakar batzuetan bederen euskarak nagusi izaten jarraitu ahal izatea, euskaldun-jendeak bere solaskide arruntekin etxean eta auzoan, kalean eta dendan, elizan eta kirolgunean euskaraz jardutea, leku horietan “berez” hala egin ohi delako. Eta horren bidez, jakina, euskarak herri-jakintzaren eta kultur ondarearen funtsezko osagai batzuen adierazpide, ikur-sinbolo eta bidelagun izaten jarraitu ahal izatea.*

Azkoitia ba al da arnasmunea euskararentzat? Herritarrek nola ikusten dute Azkoitia? Zein hizkuntzatan bizi da herria normalean? Eztabaida taldeko kideei Azkoitia herri euskalduna al den galdetzean orokorrean denek baietz esaten dute.

*Nere ustez Axkottixe herrixe euskaldune dek, oso euskaldune gainea. Ta bestaldetik beste herri batzuekin konparatze mazute oso oso euskaldun. Uste diat hamen jendiek gexentsunak behintzet euskeraz hitz etteula. (ET5)*



*Bai nike bai, bai umik daukeben giro aldetik eta bai kalin ikustean giro aldetiken eta nik pentsatzet euskaldune dala, herri bezela. (ET5)*

*euskeraz bizi gea erderaik ezta aitzen (ET2)*

*Neretzat euskaldune da bai, euskeri, hizkuntza gehixena erabiltzeana dalako ez?(ET3)*

*Bai , ba, nik adibidez ni moitze naizen lekun erderaz hitz bate ez det aitzen. Nik tabernan eittek lana eta han egotean jendiekin eta zea han ixte erderaz inork eztaki. 18-30 urte tarte hortan... (ET3)*

*hemen euskeraz eittea asko. Nahiz eta kanpoko jendie asko etorri moldau ein die... Guk behintzet poliki-poliki ikisi ein deu (ET6)*

*Hitzetten da bai behintzet (ET7)*

- Bai, euskaldune da dudeik gabe
  - Nik usteiat eukikottula gabezixek eta abar baine printzipioz bai,
  - Bai, orokorin bai.
- (ET5)

*hemen euskaldunek euskeraz hitzetteu normalin.(ET5)*

*Bai.(guztiak ados) Edozein tokitan egin daiteke euskaraz (eskoletan, kalean, dendetan, tabernetan...) eta entzuten da. Nabarmena da Azkoitian lehenengo hizkuntza euskara dela. (ET4)*

*Hemen lehenengo hizkuntza euskara da eta gaztelera bigarrena. (ET4)*

*euskeraz noventa y cinco por ciento ettealako. Ta euskeraz ein bakarik ez, ta gauze danak, bai etxie, bai jendie ta dana euskeraz daolako. (ET8)*

Ikusi dugun bezala, herritarren ustez Azkoitian euskara asko erabiltzen da, eta, gainera, beste herriekin alderatuz oso euskalduntzat dute. Nolabaiteko arnasgune izatearen sentimendua badute.

*Askotan nik pentsatzeiat hau dala euskerie hola hitzetteben herrixen artin esangogiñiki hola bihotza bezela dala ez? Ze nik usteiat, etzekiat beste nunbatten hainbeste portzentajetan eta jendie euskaldune, euskerei ibiltzebena añete daon, etzekiat*

*nik. Iguel Goierri aldin ta matematzuk eongottut baine hainbeste  
ibiltzebenak nik etzekiat nik neuk daon.(ET5)*

*Zenbait herri Axkottin neurriko herrixekin ta konparaute iruitze  
zat hamen gexo etteala euskaeraz beste herri batzutan baño.  
(ET5)*

*Guk daukeun bentaja hori hemen entornue daukeula. (ET5)*

*Hala ta guztiz nik euskeraz, euskaldun zeak euskerie  
erabiltzearen alderdittik baldimada behintzat nahiz eta eskoltan  
danok erderaz ikisi behar izen deun ala ta guztiz beti euskerie  
ibili deula, gure, nire ingurun behintzet. (ET7)*

Jardunguneak zehazte aldera, non erabiltzen duten galdetzean hainbat arlo aipatzen dituzte.

*Nik neuk ehuneko ehun  
Ehuneko ehun  
Bai  
Bai nik e bai  
Batematek hotseitemau ba erderaz ba ein ein ber baina neuk  
neure aldetik euskeraz  
(ET3)*

*Nik neuk danakin. Nik neuk danakin  
Danakin  
Bai, bai.  
Etxie, lana, launek, udaletxie.  
Bai, bai udaletxine idatzi euskeraz idaztezu.  
Nik normalin beti euskeraz  
(ET7)*

Baina guztia ez da arrosa kolorekoa. Arakatu ahala hutsuneak eta zalantzak ageri dira.

*Beste leku batzuekin konparatzen bada euskaldune da bai, baino  
herrixen bertan zaudenin, dude eittet zu kalin zabiltze eta  
erderie entzutea (ET3)*

*Azkoitia betidanik izan da euskalduna eta justu orain ari da nere  
ustez behera egiten. (ET4)*

*Eta ni konturatu naiz, ez da hainbeste hitz egiten eh. Egoten  
naizen lekutan erderaz hitz egiten du jendeak. (ET6)*

Arlo eta inguru batzuetan euskara erabili arren, ezin dugu ahaztu erdararen eragina nabarmena dela. Zalbidetik aipatzen duen bezala, arnasguneak bilatu eta mantentzean lan egiteak ez gaitu ghettoak sortzera eraman behar. Euskaldunon bizimoduak erdal eraginaren pean jarraituko baitu arnasguneotako parterik handiengan ere. Beheko adierazpenetatik ondorioztatu dezakegun bezala, Azkoitiko herritarrek ere nabari dute erdarak gure eguneroko jardunean duen eragina.

- *Nei neuri pasatze zat goizetan hartzet kafe bat eta hiru lau laun juntatzegea eta danok euskaldunek gea ta bat etortzea euskeraz badakixena baine ikisten ai dana ta haure etorri orduko danak erderaz.*
- *Akordatzeako sartzea erderie!*  
(ET5)

*tokatze bazatzu kanpun hitzettie erderaz ba lanea jun tzealako eo, haste zeala esprezixo batzuk hartzen ta pixkenaka sartu ette zaitzu ta nahi gabe erten etteizube ta askotan esatezu ostras, hori kendu ein ber det otture hori ze etzat gustatzen baine sartu ette zaitzu beste jendiei attutekuk eta, hoxek die otturak pegau ette zaitzunak eta, neuri pasau izen tzat behintzet gero iguel intentatset kentzie baino, erderazko esamoldie sartu eo... eztakit gexo eo gutxixo ettean baino, nik ustet erderaz etteun, erderak inderra daukena nahi ta ez eztuna nahi jende horren artin bai etteie holako ohitturak sartu. (ET1)*

*Eske azkeneako gexena aitzean hizkuntzie, nahi eo ez nahi, telebixue jarrittekun eo eozer jarrittekun erderie izengoa, ordun inkonstientementere holakota, talebixoa eta periodikota erdera jotze deu, hori inebitable dala ustet. (ET2)*

Iritzi hauek ikusita, zalantzak zalantza eta erdararen eraginak eragin, Azkoitia euskararen arnasgune bat dela esan dezakegu. Herritarrek ere oro har herri euskalduntzat dute Azkoitia. Hurrengo atalean, euskarak herrian betetzen dituen funtzioak xeheago aztertuko ditugu.

## **Euskararen funtzioak Azkoitian**

Atal honetan hizkuntza batek bete beharreko funtzioak zehaztu eta euskarak Azkoitian betetzen dituen funtzioak eta gizarte sarean dituen hutsuneak zehazten ahalegingo gara.

Helburu horretarako, herritarrek esandakoak Txepetx eta Fishmanen teoriekin uztartzeko saiakera egingo dugu.

Txepetxek zazpi funtzio ematen dizkie hizkuntzei:

- Nazioarteko hizkuntza funtzioa
- Kultura edo zibilizazio funtzioa
- Funtzio nazionala
- Funtzio lokala
- Laneko funtzioa
- Familia funtzioa
- Norberaren identitate funtzioa

Fishmanek berriz hizkuntzaren jardunguneak aipatzen ditu. Jardungune-zerrenda behin betikorik ez dagoen arren hauek dira aztertu ohi diren jardungune nagusiak:

- Etxea eta familiartea
- Auzo hurbila eta lagunartea
- Lan-mundua
- Aisialdia, kirolak eta jokoak
- Eskola-mundua
- Administrazioa (udaletik hasi eta goi mailarainokoa)
- Erlijio mundua
- Goi-mailako teknologia, ekonomi sareak, agintaritza eta ikerketa
- Informazio eta zabalkunde mundua

Jardungune hauetako erabilera aztertzeko unean, rol-harremanak aipatzen ditu Fishmanek. Non, norekin, noiz, nola,... ere aztertu beharrekoak dira autore horren ustez, hizkuntzaren erabileran eragiten duten aldagaiak asko baitira.

Fishmanen zerrenda Txepetxenarekin batuz horrelako zerbait lortuko genuke:

Nazioarte hizkuntza funtzioa
Kultura edo zibilizazio funtzioa <i>Informazioa eta zabalkunde mundua</i>
Funtzio nazionala <i>Administrazioa, ekonomia sareak, agintaritza eta ikerketa</i>
Funtzio lokala <i>Erlijio mundua, aisia, kirolak, ...</i>
Laneko funtzioa <i>Lan-mundua eta eskola-mundua</i>
Familia funtzioa <i>Etxea eta familiartea, auzo hurbila eta lagunartea</i>
Norberaren identitate funtzioa

Txepetxen arabera, hizkuntza baten gizarte estatusa eskala honen barruan bereganatzen dituen funtzioen baitan dago. Behetik gora zenbat eta funtzio gehiago bete orduan eta hobeto.

Azter ditzagun poliki-poliki azkoitiarrek euskarari ematen dizkioten funtzioak eta bakoitzean sumatzen dituzten hutsuneak eta kezkak.

- **Norberaren identitate funtzioa**

Txepetxen arabera, beheko bi funtzioak (identitatea eta familia) ibilbide naturaleko ikasketaren bidetik bereganatzen dira. Hizkuntza batek ez badu hizkuntza hori ama-hizkuntza bakartzat duen hiztunik funtzio hauek normalean ez dira agertzen.

Euskara ama-hizkuntza duten herritar kopurua nabarmena da Azkoitian eta funtzio hau betetzen denaren baieztapenak ere agertu dira eztabaida taldeetan esandakoen artean. Euskara zergatik erabiltzen duten galdetuta honela erantzun dute:

*Normal, zeatik jatedeu? Gosi daukeu ta jan? Zeatik hitzette deu? (...) Nola hitzeingo deu? Euskeraz! Euskaldunek gattuk eta. (ET5)*

*Geure hizkuntzie dalako.(ET5)*

*ibiltze giñenan euskerie ba besteik ez geneukelako nahiz eta erderaz ikisi zea ikastetxin eo zean florian eo dana dala nahiz eta erderaz ikisi, gurie hau hunan nahiz eta gero kanpotik etorri matemat etortze zanin ba len esan duen bezela edukazixuatik erdera saltatze giñean baina al tzanin atzea berriz euskerara. (ET7)*

- **Familia funtzioa. Etxea eta familiartea, auzo hurbila eta lagunartea**

Familiakoekin ditugun harremanetan eta lagunartean herrian euskarak duen erabilera nabarmena da. Eztabaida taldeetan maiz aipatu da euskara etxean eta lagunekin erabiltzen dela. Lagun taldearen garrantzia ere azpimarratu den ideia izan da.

*- Nik emaztearekin.  
- Nik kuadrillane bai ta umikin ta....  
- Nik normalean kalean, lagunekin ta  
(ET8)*

*Eske neretzat inderra hor dao neretzat inderra dao koadriletan eta zea giro hortan, oingue ez tet ezautzen , oingo, oin 18-20*

*urte dauzkebenetan baino gure generazixun eta koadrilik inder asko eitteu (ET3)*

*Zu baldin bazaude koadrila euskaldun baten han bai eittezula hori baina handik kanpo olvidate (ET3)*

Txepetxek zein Fishmanek aipatzen duten beste kontu bat eta funtzio honekin lotu dezakeguna, transmisioarena da. Mikel Zalbidek euskara sendo dagoen lekuetan, belaunez belauneko transmisioak “normal” funtzionatzen duela esaten du. Umeek berez bezala ikasten dutela horrelako lekuetan.

Eztabaida taldeetako kide batzuek garai batean egon zitekeen etena azaltzen dute, besta batzuek berriz, garairik txarretan ere euskara “gure” hizkuntza izan dela adierazten dute. Bestalde, Azkoitiko hizkeraren inguruan egin dituzten adierazpenak kontuan hartuta, gaur egun belaunez belauneko transmisioa gertatzen dela ondorioztatzen dugu.

*Igual garai bat eon da ez dana osau (transmisioa) ez? (ET3)*

*Nik usteiat hor, gerra denborako influentzixekin eta zea eon dala bolara bat euskerie galdu ein debena, aitte ta ama euskaldunek eukitte e? (ET3)*

*Badaola hor bolara bat que debekaute zeuela euskeraz hitzeittie ta zea ta hau ta bestie (ET3)*

*Hizkuntza etxean ikasten da ondoen dudarik gabe. Euskarak jarraitzen du horregatik. Frankoren garaian debekatuta zegoen hitz egitea. Eskolan ez zen ematen euskeraz, non hitzegiten zuen jendeak euskeraz? Familiaren artean. Familiak mantendu zuen euskeraz hitz egitea, hori, ta gero anai-arrebak eta kuadrilarekin. Familiarik gabe hizkuntza trasmisioa... hori da, hori da inportanteena, hemengo euskera horregatik mantendu zen. Urte pilo bat Frankorekin euskeraz hitz egitea debekatuta, dana eta familiaren harremanak mantendu zuen euskera. (ET8)*

*Ori nere iritziz etxien mantenduko da (Azkoitiko hitzak), hori ez tu kaletik edo eskolatik ekarriko. Hori lortzen badeu trasmititzie ondo baino bestela hori (ET3)*

- **Laneko funtzioa. Lan mundua eta eskola mundua**

Laneko funtzioari dagokionez erdizka betetzen dela esan dezakegu. Eskola-mundua guztiz euskalduna da, 2000. urtetik D ereduan ikasten dute Azkoitiko haur guztiek. Lan-munduan ordea, hiztuna aztertzean ikusi dugun bezala,

hainbat hutsune nabari dira: hizkuntza teknikoa, tresna informatikoen hutsuneak, norberaren ezagutzatik eratorritako hutsuneak,...

*Denda batzuk badaude axkottin erderaz ein ber dezunak. Eztakit, axkottin badaude, dependiente erdaldune eo. (ET1)*

*Zemait kanpotan, kanpo teknikun ta gaur eunin euskerik ondik hutsune haundixek dauzke, ondik, nik esateizut ni ibiltze naizela makinekin da ibiltze naiz ta mekanikan, mekanikan ondik euskerik hutsune haundixek dauzke. (ET1)*

*Gero eztaude aukera danake euskeraz, excel batin euskeraz eztauzketzu funtzixo danak. Zemait gauze etteko einber dezu hizkuntzetik erten, hizkuntzie aldau ein ber dezu, erdera jarri (ET1)*

*Ta googelene eztaude aukera danak erderaz ta euskeraz. (ET1)*

*Enpresatako faktura danak ikusteittuzu eta erderaz ettettube(ET3)*

*Amorrua ematen dit euskara ikasteko hainbeste esfortzu egin eta lanean dena erderaz egitea... (ET4)*

Eskola-munduari dagokionean, asko izan dira ikastetxeen garrantzia azpimarratu dutenak. 2000. urtetik aurrera herriko ikastetxe guztietan D ereduan irakasten den arren, lehenago ez zen horrela izan. Horregatik, ikastetxeak aipatzean garai batean ikastetxe batean B eta A ereduak eman izanaren eragina aipatzen da, eta, orobat, erdara ikasteko beldurragatik ikastetxe konkretu batetara bidali izana, edo euskara ikasi eta herrian integratzeko beharra ikusita umeak D eredura bidali zituzten guraso erdaldunak.

*Nik usteinat aldaketa haundixena eon dala euskerako erdue bi ikastolatan sartu danien, ordun sartu da asko euskerie herrixen (ET3)*

*Oain ama bezela nik ikustet ama bezela euskeraz gehixo hitzeiteula, nik uste gaur eunien euskerie gehixo aitzetela eskola mailan e, konbertzazixotan da (ET3)*

*- Ez dakit nik eskolin arabera aldaketa haundixe ikustet. Nik ikisi nunin zan Floria erderaz zana eta gero euskerie eta Ikastolie alderantziz, ze gertatzezan Florian zebilenak erderie eittezun*

*oso ondo eta gu euskaldunek ginen eta beti erderaz eitte gendun eta ikastolakuei ze pasatze zikon erderie indixoun moun, hori ezberdintasun hori gertau izen da. Oain berriz nik berdintsu ikusteitut, Florian dabilen umik euskeraz eta erderaz berdin ikisteu eta daude famili erdaldunetakuk umik ikastola bialtze ittubenak eta alderantziz ikastolan e erderie geixo sartu debe eta erderi re nik ustet geixo jorrauko bela leno jorratze zana baino, berdintasuna bai, bi eskolen artien berdintasuna...*

*- Baine garbi hunan lehen baietz, lehen horrek markatze zula*

*- Bai, bai*

*(ET3)*

*Nik uste garai bat eontzala alderantziz, erdaldunek bere umie hemen ondo zea zaxebeen eamate zula ikastola. Hor eon da neretzat erdaldun batzuk eaman debenak umie hobeto integratzeko gero sozidadien ikastola erdaldunek izan arren ikastola eaman dittubenak, horire (ET3)*

D erdua zabaldu izanaren eraginari erreferentzia eginez, gazteen taldean azpimarratutako ideia bat da gaur egun azkoitiar gazteen artean oso gutxi izango direla euskara ezagutzen ez dutenak. Erdalduntzat jotakoekin sorpresak hartutakoak ere badira.

*- Hori gainea, adibidez, floria ikastetxin estudiau nun nik ta hori txikitten ette zan euskaldunen gelie genuken ta erdaldunen gelie zauen. Gero danai nahastu ein tziuben gu izen ginen generazixue nahastu ein ginena. Gu eote ginen A gelie zan euskaldun ta B gelie zan erdaldune A ta B zeuden gero ia eztakit zemat garrengo mailan eintziuben erdaldunekin nahastu.*

*- Ikisi ein tzeben. Behartute bezela eon tzin ta beti beaxek gero gurekine joeri zeukeben beti euskeraz hitzette ziuben ta bai*

*(ET1)*

*Eske nere ustez euskera batua hasi zanin sartzen ia zalle da nere ustez hortiken aurrea ikisi zeбенak erderako eo euskeraz ez jakittie. Allau baldima zea batxillerreko eztakit ze maileta nire ustez zaile da. (ET1)*

*Euskeraz ikisi baldimazu batxillerreano, DBHaino ezke jakin... gero iguel gexo eo gutxixo ein baine jakin, jakin berdezu.(ET1)*



*Nik ulertze ez tunik ez nuke esango. Eztakit e? esperientziz nik ino eztet ezautzen baine ulertze ez tunik ez nuke esango Itzette eztunik iguel asko eongoie baine hitzetteko kapazidadie eztaukebenak gutxi. Eztebelako nahi eo ohitturie (ET1)*

*Nik horrekin sorpresak hartu dittut, Floriako zenbait jende. Nik ikastolan ikisi nun. Ni lanin neula gure lanea zeun etorritte kanpotik ba justu (...) tipo bat ta nik ezautze nun tipo hori kaletik, Floriakue beti kuadrile erdaldunekue nik tipo hori eztet bizixen attu euskeraz hitzetten neu jun nitzen ta nik hari erderaz ein nixon ta beak erantzun tzin euskeraz ta ni kalin tipo horrekin hitzeinde neun ta kalin beñe eztit harek euskeraz ein ta euskeraz zakixenike ez nakixen, ta euskeraz hitzein tzin baine ondo.(ET1)*

- **Funtzio lokala. Erljio mundua, aisia, kirola**

Funtzio lokalean arlo batzuek euskaraz funtzionatzen duten bitartean beste batzuetan oraindik hutsuneak daude.

Nahiz eta ziur ez jakin, herriko hainbat taldek, futbol taldeak edo mendizale elkarteak adibidez, euskaraz funtzionatuko dutela pentsatzen dute herritarrek. Kirola dela eta euskarara gerturatu den jendea ere badago.

*anaitasunan adibidez, hor fuolin jokatzen ta hauek euskaldunek die, ta nik ustet euskeraz eingobela. (ET1)*

*Mendizalike euskeraz funtzionatzebe. (ET1)*

*Nere kasuan futbola izan da Azkotiiian euskarara gehin gerturatu nauena. Anaitasunan ibili nintzen 14 urtekin, eta han taldeko beste neskek euskaraz egiten zutenez, nere lelengo pausoak euskararekin han eman nituen, hitz egiteaz gain, eukararekin jolastu, barre egin, disfrutatzen hasi nintzen...Egiten nituen akatsak ere zuzentzen zizkidaten baina gune informala zenez ez nintzel larritzen eta...Jendeak gainera transmititu zidan baloratzen zutela nik egiten nuen esfortzua. Hasieran batzuk erderaz egiten zidaten baina ulertzen nuela konturatu zirenean dena euskaraz. Kirolak gerturatu nau euskarara. (ET4)*

Erljio kontuetan berriz, gauzak ez daude oso argi. Euskaraz ikasitako lehen gauza *Agur Maria* izan zela dio herritar batek. Garai batean elizako ospakizunak euskaraz egiten zirela pentsa daiteke beraz, baina, gerra garian elizkizunak bi hizkuntzatan egiten zirela ere aipatu dute. Gaur egun Azkoitiko

elizan elizkizunen erdia gaztelaniaz egiten delako harrituta dagoen herritarrik ere bada.

*Nik Axkottixen lelengo gauzie ba al dakizu ze ikisi nun? Agur maria, errezatzen. (ET8)*

*Nere andrie esatezula, gerran denborie, elizea jun ta elizen, zea, sermoie eta mezie erderaz, Axkottixen erderaz, eta eskaerie euskeraz (ET8)*

*Axkottiko parroixen ostirel santu eunin gurutzbideie ettea jun ta erdixe erderaz? (ET7)*

- **Funtzio nazionala. Administrazioa, ekonomia sareak, agintaritza eta ikerketa**

Funtzio nazionalari dagokion atal honetan Udala, Ertzaintza, osasun mundua eta administrazioarekin harremana duten erakundeen inguruan esandakoak bildu ditugu. Eztabaida taldeetako kideek udalarekin dituzten harremanak euskaraz dituztela aipatu dute, baina administrazio organo zentraletatik eratorritako beste hainbat gunetan hutsuneak nabari dira, Osakidetzan eta Ertzaintzan nagusiki.

*Udaletxine idatzi euskeraz idaztezu.(ET7)*

*Ni Ertzañeta behin jun nauk eta bertan nire tio batekin, bea zarra eta harek erderaz idea, bueno aber, hitzein ein goik baine oso gutxi ta ezin, ezin entendi, harek nei esan ber ta nik ertzainei esan ber, hau falta dek, hola por que ertzainek etzun entenditzen euskeraz ta... (ET1)*

*Pediatrerie eon huan ixte bi urte hemen peditraik gabe eon gitxiak euskeraz ikistea jun tzalako eta gaur egun ere, pediatria jun, perfile atea ber tzian euskerakue, atea zian, liberaute eon huan ikasten ta gaur dek hik hitzein ta lelengo hitze erderaz. (ET5)*

- *Lau bost hilebete izengoen. Pakistani bat, amak jun ber medikuna eta klaro harek ez erderaz eta ez euskeraz ezerre ez harek eta alaba ikastolan eta alabak euskeraz primeran ette zuna. Alabakin jun dek eta alabak esplikatzen medikuei euskeraz taka-taka-taka ta medikuk ulertze ez. Ulertze ez, medikuk. Ta enfermerie ekarri eta itzultzen batek, alabak esate zizona enfermeriek medikuei erderaz esaten.*
  - *Nun da Axkottin, euskerie ulertze eztun medikue eotie.*
  - *Hori, itxurebeie.*
- (ET7)

- **Kultura eta zibilizazio funtzioa. Informazioa eta zabalkunde mundua**

Azkeneko bi funtzioak, kultura eta zibilizazio funtzioa eta nazioarteko hizkuntza funtzioa, bigarren mailako ikasketan lortzen direla dio Txepetxek.

Hizkuntza bat kultura edo zibilizazio hizkuntza izan dadin, hizkuntza komunitate bateko kideek beste hizkuntza(k) ikasten dituzten neurri berean beste komunitateetako kideek hizkuntza hori bigarren hizkuntza gisa ikasiko duten pertsona taldeak behar ditu. Hau da, Azkoitiarrok gaztelania ikasten dugun kopuru berean gaztelaniadunek euskara ikastea izango litzateke. Datuak aztertzean aipatu dugu 2000. urtetik aurrera Azkoitiko lehen hezkuntzako ikastetxe guztietan D ereduak irakasten dela. Ondorengo adierazpenetan ere ikusi dugu gaur egun Azkoitiko ikastetxeetan ikasten duten haur guztiek bereganatzen dutela euskara. Baina zer gertatu zen lehenago?

*Azkoitixen gertatu da fenomeno bat, jende bat badao, nere ustez, gure generazixue ta pixket goragokue dana, euskerie kalin ikisi duna, etxin gurasuek eta erdaldunek, eskola erderaz eta kalin ikisi debena eta ni kanpoa jute naiz eta hori kontatset eta ez tibe sinisten eta gero etortze naiz eta 100-200 bat kontatzeitut, oin hori igual aldau einda (ET3)*

- *Nik uste kontue dala koadrila euskaldun baten sartzie*
- *Baina Azkoitixen hori izan den dana*
- *Eske ez zioke besteik*
- *Baina azkenin herrixe euskaldune dalako beaxek amoldau die*  
(ET3)

*Nik kalean ikasi nuen, eta orain kanpoan egon naizenean irratiarekin eta irakurtzen eta.... (ET5)*

- *Bai, bai, nik bai behintzet, nik kalin ikisi nun.*
- *Hemen gehixenok, bate dudaik ez tauket*  
(ET6)

*Nik tallerrin ikisi nun, euskeraz eitte zebe da (ET6)*

- *Bazeudek adibidik, gu eskolan ibili ginenin, (herritar baten izena) ta (familia baten gaitzizena) esatexobenak, haxek gurekin hasi ittuan ta eskolan zoragarri ikixi ziabea harek ta bere anai danak.*
- *Bai, bai, hori bai.*
- *Batte Bastarrikaldine (Azkoitiko erdigunean dagoen auzo bat) ikiste ziñebenan.*

- Bai, giruk ettein dana, giruek.  
(ET7)

*Baztarrikaldie huan punto y aparte haure... Itxixe eta, eta erdaldunek etorriatik ba han zettun integratzettuan. (ET7)*

- Lelengo etorri zin erdaldunek nik uste danak ikisi zebela.  
Danak  
- Danak  
- Bai.  
- Integraure bai, hobeto ez al tzin ein?  
- Gutxi zin ta?  
- Baibe.  
- Berko gutxi hittuan ta derrior ein ber da.  
- Baine lelengo etorri zin jende haure (bi familiren izenak) ta danak Basatarrikaldin ta ikisi danak.  
(ET7)

*Neri pasau zat gaiñea lanpostue, basarritarrak ondun portunau zan ta derrior zeoze ikisi ber, gauze haundik ez baine zeoze bai. Langilin artin, jende gutxi gainea, kanteran zan, blokerixen ta basarritarrakin ta euskeraz. Hori en el año cincuentaisiete. Pentsau zemat urte din... (ET8)*

*Kalin ikisiko genun, por que aber nun! Ikastolaik eta eze etzeun.  
(ET8)*

- Hemen kanpotarrak gaizki pasako zeben gure gurasuk eta e? por que handik etorri ta hitzein etzeben etten. Gure amak behintzet beti esan tzun, urtebetin zemat near ein tzun plaza jute zanin.  
- Etzulako euskeraz entenditzen?  
- Klaro! Basarritarrak euskeraz ette zixoben eta etzun ezerre entenditzen ta zemat aldiz konprie etteke atzea etxea.  
(ET8)

*Nik garbi-garbi ikustet umik Axxkottixen bizitzeko euskeraz ber dula, garbi-garbi ikustet. Ni sekule ez naiz jun euskaltegire ta inoare ta kalin ikisittekue ta aurea. (ET8)*

*Nik, eske nik kanpokukin konparaute esateizut hemen dauden kasuk , hemen eta hanguk daude etxien euskeraik ez, eskolan euskeraik ez eta kalin ikasi debenak, eta hori ikisteko kontestu*

*bat , emane in ber da, batematek hitze eman behar dixobela  
(ET3)*

Baieztapen hauek entzunda badirudi garai batean euskarak Azkoitian kultura eta zibilizazio funtzioa bete zituela eta etorri berriek euskara ikasi beharra sentitu eta inguruak eta lagun arte hurbilak lagunduta ikasi ere egin zutela. Hala ere, ezagutza datuetara bueltatuta, herritarren %10 erdal hiztuna eta %12 ia euskalduna dela ikustean erdaldun guztiek ez dutela euskara ikasi esan dezakegu.

Eztabaida taldeetako zenbaiten adierazpenak ikusita herritar batzuek euskara ez ikasi izana erdararen militante izatearekin lotzen dute.

*Nik lanin dauket axkottiar bat hotamar baino berao ta eztaki euskeraz. Ta endendiure... aver mira esto, esto y esto, iguel euskeraz esan ta ezke que no te entiendo! Ez, ez. (ET1)*

*Nik euki dittut repetidorik eta hola erdaldunek eta kanpotarrak eta gerore bizitzea kanpoa jun dinak eta hola ta klasin nik eduki dittut etzebenak euskeraz eingo ta hitz bat eztixobetenak euskeraz attu DBHn. Baine hoxek die kaso, ba hoxe,(ET1)*

*Ta gero etorri dala jende bat, behar bada kontzintzi politikuatik eo zeaatik erderaren militante hutsek dienak, eztebenak hitz bat beare euskeraz eztaaaa, aipaure etten ta hoxek nahiz ta berrogei urte eman hemen hoxek eztibe ikisi ezta ikisire. (ET7)*

Integratzearen gaiak kezka sortzen du. Herrian etorkin kopurua asko hazi da azken urteetan eta etorkinen integrazioak kezka sortzen du. Gai honetan iritzi kontrajarriak daude, umeak euskaraz ikasten ari direla ikusteak poza ematen du, baina helduen artean ghettoak osatzeko beldurra dago. Etorkinen jatorriaren arabera desberdintasunak ikusten dituenik ere bada.

Agian, euskarak herrian eskola eta lagun arte hurbileko funtzioak ondo betetzen dituela, baina kultura eta zibilizazio funtzioetan hutsuneak dituela ondorioztatu dezakegu. Badirudi, hori gertatzeko arrazoa kulturen artean zubiak eraikitze orduan ez asmatzea dela.

- *Batzuk oso ondo ettebe euskeraz, etorkin umik oso ondo ettebe.*
- *Umik eta.*
- *Ta iguel jute mazea moruna zeoze erostea bertakue euskeraz haste zatzu.*
- *Gexenbat umik, iguel zarrak, eztakit, ikusteie hemen jendie euskaltegixetan da ta poza emateu baine umik zettun.*  
(ET1)

*Danetik eongoa, gero batzuk moldau ettie ta beste batzuk beoxen artin juntatzeie ta hortxe beoxen zea bat ettebe komunie ta beste batzuk badaude zea ettebenak eta hemen... (ET1)*

*Ni harrittute nao, Altziberren daure ez takit, pakistanixek dien eo marokoarrak eo eta neskak bere artin euskeraz eta neure txikitteko denborie akordatzeitt. Alkarrekin nola eitteben, jolin (ET6)*

*Semiei attutekue, oin dala sei hilebeteko kontue, ikastolako pattixua jun fuolea launek ta fuolin zebiltzela hango zean bi porteritten baten ai omen hittuan hiru mutil ta bestin beste hiru mutil. Eta porteri baten hiru mutil ai zinak dana erderaz. Ta bestaldin euskeraz. Ta esan tzian herrikuk zin e erderaz ai zinak ta kolorezkuk euskeraz ai zinak. Horrekin komentatzeko inkreibli da, ia hortxe ezta eze entenditzen esan tzin. (ET5)*

*Ta gainea esango genuke, bueno nik behintzet, hola pakistanixek eo marrokiarrak eta hoxek euskerako joera errezo daukebela ba adibidez hego ameriketatik ta etortzeinakin ia erdera bat zea einde, hoxei iguel zaillo ettezakobe. Ze badaukebe komunikatzeko tresna bat ta ordun hasieratik erderako joera hori... hori zaillo ettea bai. (ET5)*

Azkoitian kasu batzuetan euskarak zibilizazio eta kultura funtzioak bete baditu ere, herrian kultura batekoak baino gehiagokoak bizi garela nabarmena da. Kultura hauen artean gaztelaniadun batzuek inoiz ez dute euskara ikasteko beharrik sentitu. Beraien egoeran eroso sentitzen dira eta hori behin baino gehiagotan aipatu da eztabaida taldeetan. Euskara jakin gabe ere erraz bizi baitaiteke Azkoitian.

- Erderaz ederki moldau leikezu. Euskerie ez jakinde lasai bizi leikezu hemen.*
- Por que azkenin euskeraz eztakixenai erderaz ette xozu. (ET1)*

*Euskerin aurretiken erderaz ikixikoula, hor erderikin maneja, bizi eingou, Azkoitti batin erderie jakinde bizi ein laike. (ET2)*

*Integratze kontu hori lengun hemen, zea eztakit nungu dan, gailegue da ta Alemanin bost urte ein tzittun lanin ta gero etorri berra izen tzun, (...) gero oin hemen geraute dao hota*

*hemezazpi urtin eo ta alemanez entenditze zala ta hemen euskeraz ez. Beak esate zun beharrik ez. Beharrik etzula.(ET7)*

*Erderaz trankil egiten da. (ET8)*

Euskara ez dakitenak hizkuntza honetara hurbiltzeko bidean, behin baino gehiagotan agertu den kontua izan da euskara jakiteko beharra sentiaraztearena. Garai batean batzuk integratu baziren ere, beste batzuegan behar hori sortzen ez genuela asmatu ere aipatu du zenbaitek. Inposatzea ez dela bidea diote. Inposatu beharrean dakigunok erabili eta ez dakitenei ikasteko beharra sortaraztea aipatzen da.

- *Neretzat exijiu baino gexo berra sentiaraztie izengo litzeke. Azkenin exijute sartuteko gauzek...*
- *Baine eztede asmatzen. Ikusi besteik eztao. Estremaduratik etorritteko jende mordo batekin ezteula asmau (ET1)*

*Honek esate zuna berra sentiaraztie, askoz hobeto dala, totalmente deacuerdo nao ni, inposau ezin dixozu ein pertsona bati euskeraz ikisi ber dula zeatik ez, hola etzuz inoa. Baino, eztakiu ber hori erakusten. Eztakiu. (ET1)*

*Lelen hemenguk hitzein ta erabili ta kanpokuk etortzebaie ta ikustebabe euskeraz hitzetteala eske azken finin (ET2)*

*Geo kalin kanpoko jende asko dao ta nik esatetanien asko aitzeala erderaz, klaro jende horrek eztaki euskeraz. Kanpoko etorkinek oin edo oaindela 50 urte bate eitte zebenak eta etzebenak euskeraz ikisten, hoixek bai eztebela lortu ikistie eta ez ezin debelako (ET3)*

- *Berra ipini.*
- *Berra sortu.*
- *Guk erderaz hitzette baldimaxou haxek eztiñebe sekulere gogue eukiko.*
- *Hik erderaz hitzette baldimaxon harek eztin sekule gogoik eukiko euskerie ikisteko. Eztin ber de! (ET7)*

- *Nezezidade bat sortze baldimadeu.*
- *Berra sortu ber.*
- *Nezezidadikin bakarrik neretzat, sortu baine nezezidadikin batea euskerik dittun bere aberastasunek, noizko hizkuntzi dan, inderraz (...) pertsoniei bertasuneatik jutie leku batea*

*alde batea eukikou efektue baine beste hare berrize bere korazikin, hori tamaine batin da neretzat, oso, pixket pentsau berreko gauze bat.*  
(ET7)

*Galerazite ez, osea bestie galerazitte ez biderau euskerie erabiltzie baine galerazi ez, baine garrantzixe euskerie ta gurie euskerie. Euskaldune, Euskal Herriko, euskal herritarran hizkuntzie euskerie.* (ET7)

Kontu honetan, gizarte mailan elebitasunak eta elebitasunaren diskurtsoak egin duen kaltea aipatu du zenbaitek.

*Neretzat hemen guri sartu diube mezu bat faltsue, zea gizarte bat ele bidune izen leikela ta neretzat hori ezta hola. Gizarte hortako pertsonak bi hizkuntza eo hiru eo lau jakittie badaukebe baine bi jakin arren, osea gauze zentrala hizkuntza baten eingou ta ordun aukera politikue, aukeratzeu eo euskeraz eo erderaz eta aukera hori ein al iziteko lelengotik jakin ber dittu jendik bi hizkuntza ta hemen lelengo problemie hori da jendik bi hizkuntza eztazkila ta ordun ba bakarria dakinez ba bi dazkiunak ba egokittu ette gea ta askotan ezta justue ze iguel hamar laun ta beatzik jakin ta* (ET1)

*Lo que pasa que igual será una manera de que la gente lea en euskera. Si te dan a elegir que pasaba aquí también pues. Yo alguna vez con mis padres hemos comentado que aquí a la gente entre comillas emigrante, no le ha hecho falta el euskera para nada, porque se ha defendido con su castellano. En cambio la gente emigrante que fue a Alemania, no le quedó más remedio que aprender el alemán. Y el problema ha sido ese aquí. Entonces claro, tú si vas a elegir que puedes leer en euskera o en castellano, si andas mejor en castellano, automáticamente vas a tirar del castellano ¿no?*  
(ET6)

Ez dakienari ikasteko beharra sortze horretan edo elebitasunaren diskurtsoa gainditzeko bide bezala katalanen eredu behin baino gehiagotan aipatu da. Agian eredu baliagarria izan daiteke herrian euskarak duen kultura eta zibilizazio funtzioa indartzeko.

- *Adibidez Katalunian, Katalunian gure kuadrilleko bat juntzan Bartzelona ikistea ta katalanez ikisi berra euki zun.*
- *Han adibidez goorro die,*
- *Bai, han gooro die. Han derriorra da.*



*- Zeure turista bezela jute mazea re askotan katalanez etteingoizube nahiz ta jakin kanpokue zeala. (ET1)*

*Hara jun ezkeo derriorrez ikisi ber dezu Katalanez, ta gero hona etortzea Kantabriko jendie, Santardekue eztakit ze ikistea ta eztaukezu ezta asignatura baten e ezer e ikisi berrik, erderaz daukezu dana. Baine hara jute mazea derriortu ette zattubela. (ET1)*

*Neuri irutze zatena dek, iruitze zatena dek hortan Katalanai ze ikasi ederra badaukeula zentu hortan. Edozer gauzatan kontzientzixe dek eta dek militantzixa y puntu. (ET7)*

- **Nazioarteko hizkuntza funtzioa**

Hizkuntza bat nazioarteko hizkuntza izateko hainbat zibilizazio hizkuntzen arteko puntu komuna izan behar du. Gaur egunean ingelesak betetzen du funtzio hau nagusiki. Beraz, ikerketa honetan herri mailako erabilera aztertzen ari garenez, ez diogu aipamenik egingo funtzio honi.

### **Ondorioak**

Funtzioak aztertzen hasi garenean ikusi dugu Txepetxen ustez hizkuntza baten gizarte estatusa hizkuntzak betetzen dituen funtzioen arabera dela. Hizkuntza betek norberaren identitate funtziotik hasita zenbat eta funtzio gehiago bete bere estatusa hobetuko da. Fishmanek ere aipatzen du jardunguneak zenbat eta zabalago izan espazioz, eta erabileraz aberatsago, hizkuntzaren egoera, hainbat eta hobetuko izango dela.

Adierazpenetan ikusi ahal izan dugunez, euskarak Azkoitian hizkuntza batek bete beharreko funtzio guztiak beteko lituzke. Gure nortasuna adierazteko ikur izatetik hasi eta batzuen kasuan zibilizazio hizkuntza izateraino. Baina funtzioak aztertu ahala ohartu gara bakoitzean ere hutsuneak daudela. Eskola mundua euskaldundu den arren, oraindik lan munduan asko dago egiteko. Eta batzuegan euskarak zibilizazio funtzioa bete duen arren, euskararik ez dakiten herritar asko eroso bizi dira euskara jakin gabe.

Eztabaida taldeetan parte hartu duten kideak ere euskararentzako funtzioak zabaldu eta espazio berriak irabazi beharrez mintzo dira. Zeregin horretan norbanakoaren egitekoa nabarmena da.

*Nire ustez holako lekuta jute geanin (Ertzaintza), jun ber deu konturaute, ba iguel ezta jakingo euskeraz baino euskeraz hasi naitte, ezpaki beak ikusteko. (ET1)*

*Semiei pasau zikon guriei, Ertzañeta jun ber tzun deklaratzea eta esan tziyon, ertzainek euskeraz jakingo zun baine guriei dana erderaz eite ziyon ta gurik dana euskeraz kontestatze ziyon. Moldau zien.(ET5)*


*Nik bizi osun (Herriko sendagile bati aipamena) eduki det ta ondiken erderaz ertetzeit beai. Baine semikin jun izen naizenin, bearen aurrin esan diyot, hitzein euskeraz, badaki ta, ta semik euskeraz hitzein izen diyot beak erderaz kontestau baldimayo re. (ET5)*

## Gune sinbolikoa

Euskarak gizarte mailan duen garrantzia aztertzen lagun diezaguen beste kontzeptu bat Txepetxek aipatzen duen gune sinbolikoarena da.

Gune sinbolikoa gizarte talde bateko AB eta BA hiztunek osatzen dute. Txepetxen ustez, multzo hauetako hiztunak dira hizkuntza komunitatearen bizitasunerako hizkuntzarentzat garrantzirik handiena dutenak.

Txepetxen arabera hizkuntza komunitatea lehenago aipatutako bost talde soziolinguistikoz osatua dago, zirkulu zentrokide moduan antolatuta. Erdian jatorrizko hiztun kulturizatuak (AB taldea) ditugu; hurrena heldu eta gazte bertakotuak (BA taldea); gero, jatorrizko hiztun primarioak (A taldea); kanpoalderago, egituraren azken mailan, hizkuntza ikasten ari direnak (B taldea); eta, azkenik, kanpoan, hizkuntza horren hiztunak ez direnak (0 taldea)



Irudia: hizkuntza komunitatea eta gune sinbolikoa talde soziolinguistikoen arabera

Honenbestez, gune sinbolikoa, hizkuntzaren garapen osoa gauzatu eta hizkuntza horretan pentsatzen duten AB eta BA taldeek osatzen dute. Txepetxen hitzetan, hauxe da gune sinbolikoaren definizioa:

*“Definimos el espacio simbólico como el núcleo de hablantes que dotan a su lengua de un desarrollo completo. O, correlativamente, el núcleo de hablantes que tienen un desarrollo lingüístico completo en esa lengua.”* (7)

Txepetxek dienez hiztun osoak dira hizkuntzaren bihotza –hizkuntza batek, biziraungo badu, bere gune sinbolikoa behar du– eta zenbat eta handiagoa izan gune sinbolikoa –hiztun osoen proportzioa– orduan eta indartsuagoa izango da hizkuntzaren bizitasuna.

Ikasketa prozesuak aztertzean ikusi dugun bezala, 30 urtetik gorako Azkoitiko biztanle gehienek AB edo BA ibilbidea osorik egin gabe dute. Euskara etxean edo kalean ikasi eta euskararen ibilbide kulturala guztiz egin gabekoak dira beraz, azkoitiar asko. Ondorioaz, gune sinbolikoa hiztun motei dagokionean erabat osatu gabe dagoela esan dezakegu. Gazteak AB eta BA ibilbideak osatuta datoz, baina momentuz gutxiengoa dira herrian. Bestalde, administrazioari, Ertzaintzari eta Osakidetzari dagozkien funtzioetan hutsuneak nabari dira. Hau da, funtzio nagusienetan edo garrantzitsuenetan hanka motz gaude.

### 3.3.- HIZKUNTZA. EUSKARA

Hizkuntza komunitatearen hirukiko beste osagai bat hizkuntza da. Orain arte Azkoitiko hiztuna eta gizartea aztertzen saiatu gara. Atal honetan hizkuntzan zentratuko gara.

Zein dira azkoitiarren kezka euskarari dagokionean? Nola ikusten dute euskara, euskara batua, Azkoitin hitz egiten den hizkera? Galdera horiei erantzun eta Azkoitiko euskal hiztunen hizkuntza komunitatearen irudia osatzeko, herritarrek hizkuntzaren inguruan dituzten kezka ordenatzen ahaleginduko gara atal honetan.

Hizkuntzaren inguruan hizkuntzaren prestigioa, Azkoitiko hizkera eta euskara batua erabiltzeko esparruak, hitanoaren erabilera eta Azkoitian erabiltzen diren hainbat hitzen inguruko kezka aipatu dira. Ondoren banan-banan aztertuko ditugu eztabaida taldeetan gai hauen inguruan esandakoak.

#### Hizkuntzen prestigioa

Adin batetik aurrerakoengan behin baino gehiagotan agertu den ideia izan da hizkuntzaren prestigioarena. Garai batean euskara utzi eta gaztelania erabiltzeko arrazioen artean gaztelaniaren prestigioa aipatu dute.

- *Hemene geuk garai baten, ni akordatze naiz monjatan ibili giñenin ondorenen kuadrillan da danok euskaldunek giñen baine erderaz hitzette genun e?*
  - (...)
  - *Por ejemplo hori nire garaxen izen tzan nire iruipena e? erderaz hitzette zan, como mas progre.*
  - *Bai, bai.*
  - *Beste kategori bat bezela.*
  - (...)
  - *Ta neskak gexo erderaz, mutilek baino neskak, baietz?*
  - *Bai, gaztetan bai.*
- (ET5)

*Len eta ondikan ere hola sentizen dinak pixket sentizen dinak jota botatzetik kriston erderakak jakinen gainin, epa, kriston botatze txiat baine erdera hitzetteiat eta haxek sentitzettuk bestik baino pixket kultuago ta zea ta ez gattuk konturatzen euskera erabiltzie ta euskera jakittie kultura dala. (ET7)*

- *Baine axkottixene andrak eta jarri zatte emakume artin beire ta pasiran badijuzte.*
- *Joera hori, joera hori (gaztelaniaz hitz egitekoa)*

- *Neretzat prestigixue, neretzat,*
- *Nik ustet pixket baietz.*
- *Y por que hablar un rato en erdera eta gero euskera pasau.*
- *Hori den otturie.*
- *Otturie? Nola ottu dittun ba?*
- *Prestigixue emateulako iguel.*
- *Ez, hori gure gaztetan da zan prestigixue, ni akordatze naiz eztatkit zenen alabak eta bakarrak zin erderaz ette ze ben gurasuk eta lagunek eta zeak eta oso zeak. Haxen alabak baizik etzin osea.*

(ET7)

Prestigioaren kontuarekin lotuta, euskararen inguruan garai batean izan ziren aurreiritziak baztertu beharra aipatu dute.

*Eta naturaldu ber dik euskerie eztala inkulturaren zea bat, ezaugarri bet, baizik alderantziz. Alderantziz. (ET7)*

*nik usteiat eduki deula edo etzekiat pixket euskerie balitz bezela, ze esangoiat bat nik, bigarren mailako, erderaz dakixena haure kultu eta etzekiat ze (ET7)*

Gaztelaniak izan duen prestigioak eta euskararen inguruan egon diren aurreiritziek lagun dezakete hiztunok egun ditugun hainbat portaera azaltzeko orduan. Lehen hitza gaztelaniaz egitea, barkamena eskatuz bezala gaztelaniara aldatzea,...

## **Azkoitiko hizkera vs Euskara Batua**

Helduenek Euskara Batua sortu eta zabaltzeko egin den ahalegina azpimarratzen dute. Idatzizko estandarerako, herri aldizkaria eta abarretarako, batua erabili beharko genukeela diote. Gazteek ere beste euskalkietako jendearekin hitz egiteko orduan euskara batua izatearen balioa azpimarratu dute.

*Ni Axkottiarrez Maxixatzenen adibidez, oin inguru hortan gaudelako, zerbait zerbait sartuko niki Axkottiarrez eo Axkottiko euskeran baine bestela. Ein dan aleine Euskera Batuen zeatako eta joe, haste magea hemen zea, adibidez, Axkottin ateatzen Maxixatzen ba Axkottiarrez ta Axpettin ba Uztarria Axpettiarrez, Beasainen etzekiñat ze, Antzuolan baztekinat ze, jo hori den. Euskera Batuek zeoze baldimauke pixket hori dek ez? danoi zea etteko eta danak ulertzeko ta (ET7)*

*Ezpeletako batekin euskeraz ikisi duna, euskera bature jotzezu ta bixok elkar ulertzeko aukerie daukezu, bestela hori ez paldimakixu eztaukezu tarteko gauze hori, ordun.*  
(ET1)

Maila informaleko erabileran, ordea, Azkoitiko hizkeraren aldeko hautua egiten dute. Lagunartean azkoitiarrez idazten dute normalean eta euskara batua gauza formaletarako erabiltzen dute. Helduagoen artean joera normala izan daiteke, beraiek dioten moduan, Euskara Baturik ez baitute ikasi. Baina, gazteen artean ere joera hori dagoela dirudi.

*Axkottiarra baldima axkottiarrez ta bestela ba batua (ET1)*

*Nik kanpokui elgoiberkuitare betti axkottiarrez idaztexobet (ET1)*

*Entenditze mabe axkottiarrez (ET1)*

*Nik beti axkottiarrez idaztet. (ET1)*

*Badakizu hitzetteakun nola entenditzeizun ba era horta. (ET1)*

*Idatzi hitzettean bezela. (ET1)*

*Lagunartin ta hola baldima Axkottiarrez ai balidmazea ba informala da ordun lagune eo (ET1)*

*Nike axkottiarrez errezo (ET7)*

*Hitzettetena ipini etteiat papelin hitzettetan era. (ET7)*

*Baino guretzako zailo den, alfabetau ez geantzako errezo den gu bagitxitxin ipintzie euskera batun ipintzie baino. (ET7)*

*- Bai baino nik hiri mezue bialtzeinatenanin telefonoz beti axkottiarrez idazteñat beti.*

*- Bai, fijo*

*- Baine hori desberdine da zuk Axkottiar bati bai baine Donostiar bati?*

*- Nik danai Axkottiarrez.*

*(ET7)*

*Jo daigun, hemen gaudenetatiken hortan ibili zeatenaz aparte zeñek daki bagitxitxin euskera batun ipintzen. (ET7)*

*Nik etxekukin euskeraz ettet. Axkottiarrez baine neu gero irakurtzen ai naizen era ikustet ez, hau gaizki zioke eta jute naiz pixket aldatzen. Ta gero semin erantzune jutezat esanez, ama oingun bale dezu e? hau oso ondo idatzi dezu. A bale. Baine lelengotik. (ET7)*

Batzuk azkoitian hitz egiten dugun bezala idazteko orduan arazoak edo zalantzak izaten dituztela aitortu eta arau batzuen beharra aipatzen dute.

*Nik problemie eukitzet idazteakun nola guk hitzek asko juntau ettettouen, gero eztakit hitz batuntu idatzikot eo aparte (ET1)*

*Nik euskera batua, ze axkottiarrez ba al dao ezerre ba? Esan nahi detena da e, arau batzuk ba al daude, zea batzuk jarritte ba al daude. (ET7)*

*Arau batzuk eta behar dittuk arau batzuk danak berdin idatzi beharko giñikik axkottiarrez baino axkottiarrez bale, baine danok berdin. (ET7)*

Ahozko erabileran, gutxiago bada ere, antzeko zerbait gertatzen da. Euskal Herriko beste herriren bateko norbaitekin hitz egiteko orduan, asko dira azkoitiko hizkeraren ordean batua erabiltzen dutenak, nahiz eta batua erabiltzea kostatu edo erabilera horretan arraro sentitzen diren. Euskara kalean ikasi dutenek, berriz, euskara batuarekin arazoak dituztela diote.

*- Baine hori da segun, len esan deuna. Leitza jun ezkeo, axkottiarren ein han eztizube eze entendiuko, ordun erdiko bide bat hartu ber dezu...*

*- Bai, bai,*

*- Akabera hoxek zattu pixket ta*

*- Polikixo hitzein da...*

*- Hori neire gertatze zitek, zenbait lekutea jun ta hasi hitzetten ta hasteaiz ta pentsatzek jo oin hemen axkottiarrez xe, xe, xo, xo haste naizenin etzibe eze entendiuko ta gero haste haiz erdi batua etten, erdi zea etten ta bueno, azkenin nahasketa bat ettek...*

*- Ta hitzetten ai zeala zeu ai zea pentsatzen, ai naiz ba ni... (ET5)*

*- Herriko hizkerie ibiltzie herritik kanpoa nei behintzet asko kostatze zat.*

*- Neire bai, neire bai.*

*- Bai e? nik esangoniak axkottiarrai askoi pasatze zakula, kalien e, geu beste euskalki bat eo etteunakin baldimabil haren era jartzegeala.*

- *Bai, bai*
- *Bazekiau geurie zaillo etteala entenditzeko ta geu harenea errezo moldau eo*  
(ET5)

*Ez, ez, ni euskera batun ez naiz moldatzen. Irakurrita bai baine hizketako ez.* (ET6)

*Ta Axkottiko hizkerie ettiere ondo dao, (...) ez ein ezkeo. Esan nahi det, ondo bukaute, osea hitzek jateke, gexegi jateke ein ezkeo. Nei gustau ette ziten. Zeatik einber dinau be zea euskera batuan? Nei euskera batun iruitze ziten teatruue etten ai naizela.* (ET7)

Gazteei arraroa egiten zaie helduek Azkoititik irten eta euskara batua jakin gabe ere besteek hobeto ulertzeko euskara batuan egiteko duten joera.

- *Baine hori uste lenguk daukebela joera gexo oinguk baino, guk oin eztet uste hola ettedeunik e? nei etzat iruitzen, gure edade ingurukuk hola ez, baino zarrak, bo zarrak o, gurasuk eta hola bai. Erabat, nire osabak eta*
- *Gainea gexo kostatze zakobe beaxei nola erderaz ikisi deben eta hola, euskera batun ez takibe ondo, baine saxau etteie, bestik ondo entenditzeko. Askotan esatexozu Axkottiarrez ette maxozu iguel Tolosako bati endendiukoizu.*
- *Baibe ai diz beaxen euskera batu raro bat etten.*  
(ET1)

Herritarrek euskara batuaren eta Azkoitiko hizkeraren erabilera maila formal-informalaren arabera bereizten dutela esan dezakegu. Gauza formaletarako edo herritik kanpokoekin aritzeko euskara batua eta herri mailan aritzeko berriz azkoitiko hizkera.

## **Azkoitiko hizkeraren pertzepzioa**

Hitz egin eta idazteko orduan Azkoitiko hizkeran erosoago sentitzen diren arren, herriko hizkera gogorra, zakarra, zaratatsua eta antzeko adjektiboekin lotu dute.

- *Donostiarraikin hitzettekaun ta ama! eztakit ze eo parrez ta aitze gea! ta naidezuna azkenin batua o erderaz, adarra jo ez baino hori bullosue dalako eo*
- *Gu bruskuo gea, Axkotti Axpittiarraikin konparute Axpittiarak goxuo die, gure*
- *Bai, gure X eta zea hori*
- *Bai ta bi te tte zea ta, goorro bezela.*
- *Bai, bastuo*
- *Bestik fino eo, eztakit. Nei hala iruitze zat.*



- *Nei lepo gustatze zat, nik axkottiarra ez nuke aldako inundik inoare baino..*
- *Nike aldau detanin ezta izen etzatelako gustatzen izen da ulermen aldetik gexo*  
(ET1)

*Axkottiarin bertane takarro ta leuno re badaude. (ET1)*

*Nik gizona azpeitiarra det , neri hango familixek beti esateibe ze raro, zuk beti euskeraz hitzeitzeu baina umik euskeraz hitzittebenien joe ze azkoitiar fuerte eittebe (ET3)*

Azkoititik kanpora hitz egiterakoan hizkera zaindu beharra ere aipatu dute batzuek, hitzak ondo bukatu, poliki hitz egin, ... Azkoititik kanpora gure hizkera ulertzea zaila dela diote.

- *Ta Axkottiko hizkerie ettiere ondo dao, (...) ez ein ezkeo. Esan nahi det, ondo bukaute, osea hitzek jateke, gexegi jateke ein ezkeo.*
- *Nire horren zaile naun. Hortan esangoñat ba, gure etxin haste geanin bazkaltzen danok eta gure Olatz, haure Ondarrabikue den ta makal ai geanin danok, primeran, bearek dana euskeraz ettein, baine gu haste geanin ttuttu ta ttatta. (...) ta ezten aklaritzen. Makal hitzette deunin.*
- *Bai, Hori esan nahi nikin, makal hitzein ta ondo ahoskaiez hitzein ezkeo. Nei, guri Bilbon esate ziunebe, gu (...) hizketan haste giñenin gure artin Axkottiarrez pa, pa, pa, pa, telefonun eote zanak esate ziunan, bettu, dakittelako euskeraz ai zeatela ze bestela Alemanez ai bazineten, ai bazineteke bezelaxe eongo nitzeke. Eztet ezerre entenditze, ezta ezerre.*  
(ET7)

Herriko hizkera adjektibo ezkorrekin lotzen dute eta nolabaiteko zailtasuna aitortzen diote. Herritik kanpora gure hitz egiteko modua gutxietsi eta baztertzea ekar dezake jarrera honek.

## **Azkoitiko hitzak**

Herriko hizkera takartzat dugun arren, bertako hitzei balioa ematen diegu. Hizkuntza kontuetan kezka sortzen duen beste gai bat da Azkoitian erabili ohi ditugun hitzena. Batzuen ustez orain arte erabili diren hitz asko galtzen ari dira, eta galera horretan, batzuek ikastetxeen eragina aipatu dute.

*Bertako hitzek dinak eta hola nik uste asko galdu ein da, amama ta attitte ta zea, hitz zea hoxek eta.(ET1)*

*Hitz asko, eztaikit, jatekukin batte hasitte, eztaikit, batzuk urdai hirugierrie eo eztaikit ze ta gure etxin o txantxiorra o eztaikit hola, hitz asko daude, jesus ta hori hola esatezu? Ba, bai. Hitz lepo, oin hola eztaikit baino bai. Batzuk beste era batea ibiltzettube, Axkottin (ET1)*

- *Eta beste gauze bat antzekue horrekin, atte, ta oin ume askok aita.*
- *Nere kuadrillen badaude attei aita esatexobenak ta ama ta atte axkottiarak dauzkebenak eta attei aita nolatan? Atte axkottiarra daukebenak, aita. Nire kuadrilen daude attei aita hotsettexobenak ta axkottiarak e?*
- *Nere kuadrilane badao, bi bai behintzet.*  
(ET1)

- *Nik neuk ezin det, ezindet lortu, hiru alaba dauzket nik eta ezin det lortu aitte esatie, aita ta aita, eta ezin lortu aitte esatie..*
- *Hori eskolin kulpa dek , hori geuk*
- *Ez dakit zeinen kulpa dan baine ez det lortu aitte esatie*
- *Hori eskolin kulpa*
- *Neri aitte esatezik*
- *Nik ezin diat lortu*  
(ET3)

- *Neri iruitze zat bailaratan bai hori geixo mantendu dala, dao Azkoittiko hizkerie neretzako zeao, igual izengoa jende edadetue daon bitertin, igual gaztik datozen bitertin hori ere galdu eingoa baino..*
- *Azkoittiko hizkera, guk beti esandeu*
- *Amortzue ta bebarrue*  
(ET5)

- *Oin antxintxike iñok eztu esaten. Bebarrue inok eztu esaten.*
- *Portala, korrika, aita. Atte inok eztu esaten, aita.*  
(ET7)

Beste kezka bat euskara batutik etorri diren hitzena da. Alde batetik harritu egiten gara zein erraz sartzen diren ikusita eta bestetik, zuzentasunari dagokionez kezka sortzen digu. Zein da zuzena? Azkoitian bizi guztian erdaratik hartuta erabili duguna edo euskara batukoa?

- *arbolie esan berrin zuhaitz eta ia batua.*
- *Nik neuk ez, nik arbolie esatet.*
- *Udaletxie eo aiuntamentue.*

- *Aintamentue.*
  - *Segun hontxe bat ta hurrena bestie.*
  - *Nik udaletxie baino hori, hoxek ustet eskolan zea eindeulako, nere amamak aiuntamentue esangoula ta.*
  - *Gure amaman garaxen udaletxe hitzek esistiutere ez.*
  - *Holako hitzek dana erderaz.*
- (ET1)

*Ba neretzat zuk esan dezuna, adibidez nere amamak aiuntamentue esango luke, udaletxie ez luke esango ta ordun hori zer da axkottiarrez aiuntamentue esatea o erderatik sartuteko hitz bat da ta ordun zuk nola hitzein ber dezu oin euskera jatorrin esateko udaletxie ibili ber dezu eo aiuntamentue? Iguel jutezea leku batea ta periodikue pasai zu? Ta periodikue? Hola esate al dezute ta? Axkottiarrez hola esatea baino klaro ezta Axkottiarra iguel da...(ET1)*

*Bai ikastolatik etortzeien umiek bai ekartzeitune hitz batzuk lehen nik eta nere andrik ez genittunak erabiltzen eta oain, telebista, ta etzakiat ze ta guk telebixue, ... ta ja sartzeitxiabe ta heu harritu eite haiz... (ET3)*

- *Ta aterkine da guardasola guretzako ta oin aterkine. Ta nik umiei esatexot ekarri guardasola ta.*
  - *Bai, ta guk normalean aiuntamentue, ta orain udaletxea*
  - *Dana kanbixaute dao e?*
- (ET8)

Esandakoak kontuan hartuta, herriko hitzen erabilera bultzatu beharko dugu, betitik hemen erabili diren hitzak ez daitezen gal. Beste alde batetik, Joxerra Gartzia, Kike Amonarriz eta Andoni Egañak hizkuntza kalitatearen inguruan bereiztutako hizkuntza zuzena, jatorra eta egokiaren arteko bereizketa egiten asmatu beharko dugu.

## **Hitanoaren erabilera**

Hizkuntzari dagokionean, talde guztietan aipatu den kontua izan da hitanoarena. Zenbaitek Azkoitiko ezaugarri gisa aipatu du.

*Zemat herri daude hika ettebenak? Oso gutxi ez, ordun? Horrek beake bereizte gatzik ez? Ze kanpoa juteaiz ta zuke haste haiz zettun ta hemen daukek erreztasune ba danai hik (ET5)*

Beste batzuk berriz, gazteen artean hitanoa gero eta gutxiago erabiltzen dela sumatzen dute.

- *Hika gutxixo ibilikoa.*
- *Bai, bai.*
- *Gaur eun askok hika eztakixebela.*
- *Oin gazte askok etten etzekibe e?*  
(ET7)

*Ta nik uste galtzen ai dala ba? Gaur egun hika hori. (ET7)*

*Nik ikustetena da galtzen galtzen ai dala hikako euskera hori ,  
hikako hizkera hori ai da asko-asko-asko galtzen. (ET3)*

Gazteen artean toka eta noka ez bereizteak ere kezka sortzen du. Gazteenek beraiek aitortzen dute gaizki erabiltzen dutela. Neskei noka egin beharrean toka zuzentzen direla haiengana.

*Ta bestie diferentzixe bilatzen nik da asko haizak eta haizan.  
Adibidez, askok haizak dana gizonaizkotik bai neskai eta bai mutilei eta hortan daukeun aberastasune neskai haizan ikusiko al diñau hau eo ikusiko al diau hau, ia on dana mutil jiten, neska ta mutil danai berdintsu hori hitz hori (ET7)*

*Emakumiei, nik ikusitte gazte asko, o sea, guk bereizte deun bezela neskie ta mutile, haxek eztebe bereizten, danai berdine.  
(ET5)*

*Eta gehixo zabaldu dek mutilena, mutilenak balixo dik denantzako, esaten zoat eta ematen zoat.. eta (ET3)*

*Nik badauket neska bat laune, ezke, intentatzen baino ezin diat, mutile bezela ta azkenin ia zuka haste naiz. Bueno zuke ingoiat zeatik ia gaizki ai nauk hitzetten da. (ET1)*

Gazteen erabilerari dagokionez, gazteek beraiek diote hitanoa gehiago erabili nahiko luketela baina aldi berean erabiltzeko orduan deseroso sentitzen direla adierazten dute.

- *Nik naxo det nei hika eingo balieke. Nei gexo gustatze zat. Ta neuk eztet etten bene baine...*
- *Neire gustatze zat baino nei pasatze zat, nei batzuk etteibe hika ta nahiz ta jakin nik hika etten eztit ertetzen*
- *Nik ustet gexo praktikatzie dala.*
- *ta hika ta zuka ta hika ta zuka ta horire etzat gustatzen baine ez naiz kapaza, ez naiz komoda sentitzen nahiz ta jakin nola ettean e?*  
(ET1)

Horregatik, agian, ikastetxe batzuetan hitanoa erakustez gain erabilera ere bultzatzen hasi dira.

*Gure semie bigarren mailan zebilek eta zeukeabe ordu bete astien hika hitzeitako (ET3)*

Hala ere, hutsuneak hutsune eta modu desberdinean bada ere, adin talde guztietako partaideek diote beraien adinean hitanoa erabiltzen dela. Etxeko ohiturek, adinak, sexuak,... faktore askok baldintzatzen dute hitanoaren erabilera.

*Segun ze konfiantza daon.(ET1)*

*Nik batzui hi beste batzui zu, segun ze tratu dauketen...(ET5)*

*Hartu eman haundixe baldimaukezu hike gexo ibiltzezu. Nik adibidez len, bai hi, hi launei ta holakuei baine oin neuk gexo ibiltzet hi zu baino, esan nahi nuke zemaiz gizonezko te len hi etzan gure zazoen ez hunan hi esaten. (ET7)*

*Ohiture konture bada pixkat e? (ET7)*

Gazteenen artean koadrilan eta, gehienbat mutilen artean erabiltzen dutela diote.

- *Bai kuadrilan hike, bueno neskai ez, neskai zuke. (ET1)*
- *Neskakin hika normalin oso gutxi.*
- *Hika mutilei.*
- *Nik neska batekin beti hika ta beake hala hitzetteu e? baine hika mutilekin, ta beste erozein neskai ezingo nixon hika ein.*
- *Guk zortzigarren maila arte ibili ginen gelakuk, haxe hike, danai hike. Beaxeke hike, batzuk bai ta bestik ez. (ET1)*

*Neskak neskan artin zuke (ET1)*

Emakumeen artean hitanoa gehiago galdu izana edo emakumeei zuka egitearena helduagoek ere aipatzen dute

*Nik ustet hori bai dala mantentzekue, mutilena , igual ekibokau eingo naiz hortan e , mutilen artin geixo mantentzea nesken artien baino, nik uste nesken artien gehixo galdu dala (ET3)*

*Emakumiei geuke, gexo kostatzea. (ET5)*

*Neskak bean artine zuke.(ET5)*

*Hombre gurasuei ta emakukiei beti zu. Gizonezkuei hi ta emakumiei beti zu hori. (ET7)*

Hikaren erabilera baldintzatzen duen aldagaietako bat adina edo hiztunak familian betetzen duen rola da.

*Zaharrauei beti zuka (ET1) (baieztapen orokorra)*

*Gurasuk seme-alabai bai, seme-alabak gurasoei ez, hoixek oso markauk ituan, aiton-amonak ilobei bai, ilobak aiton-amonei ez, irakasliek igual depende ze edade , igual bai baine gaztie (ET3)*

*Nere amamak nere amai ta nere tiai ta ettexo hike baine beaxek ez, beaxek zuke ettexobe, beaxen artin hike ettebe baino. (ET1)*

*Nere attek, bere semiei, nere anaxei, hika ein ta anaxek iguel hika erantzun ta hik nei hika ez!Ta hor zea daola, ta nere attek bere arrebakin bai etteu hikaz baino attek, osea attek anaxei baine anaxek beai ez, osea zea hori, jerarki hori bezela. (ET1)*

- Guri re amamak hike  
- Bai, nei amak hike hitzeittet, nei amak hika hitzeittet, bizi osun  
- Nik ahizpekin eta beti hika  
(ET3)

*Seme-alabai ta beti hika ein izen dixot. (ET7)*

*Neuk len etxin, gurasuk neuri hi beti, baine nik gurasui zu. (ET7)*

*Gurasuk neri neska kozkorra nitzelare haxek nei hi, enkanbio nik gurasui zuke beti. Ahizpekin nahiz ta alde handikuk gea bi ahizpe baine beti hi alkarri. Lagunei hi. Seme-alabai hi. (ET7)*

*Nik iloba danai hi. (ET7)*

*Ta gure osabak eta osaba-izebak neri adibidez haxe danak anai-arraba danak hike. Nahiz neskak izen nahiz mutilek izen danak hike. Gure osaba-izebak eta alkarren artin danak hike*

*ette zien. Nahiz neskak izen nahiz mutilek izen. Bai atten aldetik ta bai aman aldetike bai. (ET7)*

*Gure etxine hemezortzi urte aldeko zea daudez seme-alabak ez? zortzi eta danak hike elkarren artin baine gurasuei eta ezta pentzaure. (ET7)*

Baina hori ere etxetik etxera aldatu egiten da

*Nik ettet (aitarekin), beak nei ta nik beai ta anaxie ta amakin batzutan. (ET1)*

*Baina nik alabai zuka ordie (ET3)*

*Nerekin lana eitteun gazte batek aittei hika eitte zioke ta normal-normal, bazeudek aittekin hika hitzeittebenak (ET3)*

- *Gurin neskak eon dilako zuka, mutilek izen bazin iguel hika. Oin biloba mutile dalako hari hika. Ta bestela neskak dilako zu.*
- *Gurin bixek zeudek ta guk beti zu esate zoau seme-alabai. Beti zu. (ET7)*

Adinarena ere oso aldagai erlatiboa da. Zaharragoei errespetuz zuka egin diezaiekezu eta zuka egin diozun horrek gaizki hartu.

*Geo baitte pasatzen, eun batin gizon bati tabernan zuka haste haiz ta bea moskeatzen zan, hike eiek ni ez nak eta hi baino askoz zaharro, nik handik aurrea danai hika eitte zoabeat. Baitte hirurogeikuei e, ze nahi dek eo ze eo (ET3)*

Errespetuagatik edo, bikoteen artean gertatu ohi den fenomeno bat ere aipatzen dute, lagunak diren bitartean hika hitz egitea eta bikote bihurtzean zuka hitz egiten hastea. Helduenek hori lehengo aldean gutxi gertatzen dela diote. Eta bikoteen artean mota guztietako harremanak ageri dira.

- *Mutil batek neska bat ezautu ta lenengo hike ein ta gero pareja bihurtu ta zuke. Hori da ba, hike... informalo dala ta zuke berriz ba errespetuzkuo o eztakit.*
- *Aldrebeskare bai iguel, lelen zuke ta gero konfientzie hartzezunin... (ET1)*

*Guk pasa ein ginean, guk nobixotan hika, lehenengo lagun bezela hika eta gero hola errespeto faltie emate zula ta oin zuka (ET3)*

- *Errezo esatexozu oin, ta batte mutileke neskiei leno hori zeuen, mutilek neskiei zu eta neskiek mutileire zu.*
  - *Eta ezkundun artin adibidez hika? gaur egun hika kantidadie zioke baine*
  - *Baine leno bela.*
  - *Len banaka batzuk e?*
  - *Gure sasoiene ezta banaka batzuke.*
  - *Kuadrilekuk zienak eta.*
- (ET7)*

*nik incluso andrikin hika hitzeitteiat, beti , ta nere amak ta andriei zuka hitzein berko xok ba, zeba ordie, bizi guztixen hika hitzeindeu ta (ET3)*

Hitanoa erabiltzeko joera egon badagoela nabari da. Ageri diren hutsuneak ez areagotzeko erabilera eta ezagutza lantzen jarraitu beharko dugu.



## ONDORIOAK

---

Datuak eta iritziak ikusita Azkoitia nagusiki herri euskalduna dela esan badezakegu ere, kezkatzeko motiboak ere baditugula esan behar da. Ahozko erabileran euskaraz funtzionatzen dugu, haurrek euskaraz ikasten dute, etorkin gazteek ere ikasi egiten dute, baina, ezin dugu egonean trankil gelditu. Ez da komeni bertan goxo egitea, ikusi dugun bezala, Azkoitian oraindik euskarak zuloak izan badituelako.

Hiztun mailan hizkuntzaren ikas prozesua erabat amaitu gabeko herritar ugari dagoela ohartu gara. Ikasketak gaztelaniaz egin dituztenek euskara ibilbide naturaletik soilik jaso dute, hizkuntzaren ibilbide kulturala osatu gabe dute eta euskaraz irakurri eta idazteko orduan hutsuneak dituzte. Eta nahiz eta batzuk euskaraz idatzi eta irakurtzeko ahalegina egiten duten asko dira gaztelaniazko testuen babesera jotzen dutenak.

Helduenek gazteagoetan jartzen dute esperantza: *Euskaraz ikasi dutenez horiek errazago egingo dituzte guk egin ezin ditugunak*. Baina ohartu gara gazteen erabilerak ere hutsuneak dituela. Euskaraz ikasi arren ikasketak amaitzean gaztelaniaz edo bestelako erdaretan funtzionatzen duen lan mundu batekin egiten dute topo eta beste hizkuntzek euskararengan eta pertsona hauen euskararen ezagutzan duten eragina nabarmena da.

Gure ikasketa prozesuak osatzen ez baditugu euskara ahozko erabilerara mugatuko dugu, idatzizko testuak arrotzak egingo zaizkigu eta inoiz ez gara lau lerro baino luzeago den testu bat idaztera ausartuko. Horrela nekeza izango da euskarak gizarte mailan beharrezko dituen funtzioak osatzea.

Ikusi dugu herrian euskarak hainbat funtzio betetzen baditu ere ia funtzio gehienetan hutsuneak daudela. Lan munduko erabilera ahozko erabilerara mugatzen da, Udaletxeko langileek euskara dakiten arren, Ertzaintzan eta Osasun arloan ez da langileen ezagutza bermatzen, herrian euskararen beharrik sumatzen ez dutenak asko dira, atzeritik etorri den jende kopurua ugaritu egin da...

Eztabaida taldeetan parte hartu dutenengan nabari da herritarrek euskaraz bizi nahi dutela. Funtzio berriak irabazi beharraz eta gure erabilera kontzienteki egin beharraz mintzo dira. Portaerei dagokionez izan dugun ikasketa prozesuak eta bizi izan ditugun egoerek eragin nabarmena dute. Hizkuntza mendekotasunezko portaerak oso barneratuta ditugu. Hizkuntzari funtzio berriak eman nahi badizkiogu portaera hauek aldatzetik hasi beharko dugu.

Gizarte mailan, berriz, herri erakunde eta elkarteek beraien hizkuntzaren erabilerak duen garrantziaz jabetu beharko lukete. Izan ere, beraien lanarekin hizkuntzari funtzioak eman eta gizarte sarean euskarak duen lekua indartu

dezakete. Azkoiti bezalako herri batean bada garaia elebitasunaren diskurtsoa gainditu eta Udala, herriko elkarteak eta taldeak euskara hutsean funtzionatzen hasteko.

Baina kontua ez da eskatzea soilik, egiteko ere asko dugu. Herrira datozen etorkinekin zubiak eraikitzen asmatu behar dugu. Hemengoa erakutsi eta guretzat duen garrantzia transmititu behar diegu, ikusi, ikasi eta hemengo senti daitezten. Eta zubiak bi norabidetakoak direnez guk ere beraiengandik zer ikasia izango dugu. Agian herritar berri hauetako asko hizkuntza txikietako hiztunak dira, agian beraien herrietan honako baliagarri izan daitezkeen praktikak martxan jarri dituzte, agian euskararentzat etorkizun berri bat sor dezakegu denon artean, auskalo.

Sareak sortzeko garaian erabiltzen dugun hizkuntzak ere izugarritzko garrantzia du. Euskara euskaltegian ikasi duen batek, erabilerarako pausoa eman eta ikasketa prozesuan ibilbide naturala osatzeko, Azkoitiko hizkerara hurbiltzeko bideak eskaini beharko dizkiogu. Mintzalagun programak adibidez urtebete darama martxan eta praktika egokia izan daiteke zeregin honekin jarraitzeko.

Etorkinak gurera hurbiltze horretan gurea zaintzen ere lan egin beharko dugu, Azkoitiko hizkeraren ondarea jaso, hitzei erabilera eman, hitanoa ikasi eta egoki erabiltzeko bideak eskaini eta sortzen diren behar berriei erantzuna ematen ahalegindu.

Ikusten den bezala, herrian euskararen egoera hobetzeko zer egina badago. Hemendik aurrerako erronka izango da egindako lana aurkeztu eta gai honetan interesa duten herritarrekin eta herrian euskararen inguruan lanean ari diren eragileekin lehentasunak adostu eta aurrera begirako lan ildoak zehaztea.

## Oharrak:

---

- (1) 1 irudia: Prebentzio komunitarioko gida metodologikoa esku-hartze prozesuen bidez. Zesar Martinez eta Kontxesi Berrio-Otxoa. UPV-EHU (Parte Hartuz lan-taldea)
- (2) Azkoitiko Udala. <http://www.azkoitikoudala.net>
- (3) J.M. Sanchez Carrion, Un futuro para nuestro pasado (1991). 35. orria
- (4) Parentesi arteko hizkiak zalantza azaldu nahi du, ez baitakigu oso ondo hizkuntza bereganatzeko bidean pauso horretara iritsi diren edo ez.
- (5) Mikel Zalbide, Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko. Hiznet Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. 20. orria
- (6) Mikel Zalbide, Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko. Hiznet Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. 20. Orria
- (7) J.M. Sanchez Carrion, Un futuro para nuestro pasado (1991). 65. orria

## Bibliografia

---

- Juaristi Larrinaga, Patxi. Gizarte ikerketarako teknikak. Euskal Herriko Unibertsitatea, argitalpen zerbitzua.
- Martí Joel (2004ko uztaila). Diagnósticos locales participativos: estrategias, métodos y técnicas. Universitat Autònoma de Barcelona.
- Martínez, Zesar, Berrio-Otxoa, Kontxesi, Altuna, Olatz eta Jausoro, Nekane (2010). Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak. Hiznet, hizkuntza plangintza ikastaroa
- Martínez, Zesar eta Berrio-Otxoa, Kontxesi. Prebentzio komunitarioko gida metodologikoa esku-hartze prozesuen bidez. UPV-EHU (Parte Hartuz lan-taldea)
- Rebollo Izquierdo, Oscar (2002ko apirila). La participación. Resistencias y cómo vencerlas. Universitat Autònoma de Barcelona.
- Ruiz Ruiz, Jorge (2009ko maiatza). Analisis sociologico del discurso: metodos y lógicas. Forum: qualitative social research.
- Sanchez Carrion, Jose M<sup>a</sup>, Txepetx. Un futuro para nuestro pasado.
- Zalbide, Mikel eta Erize, Xabier (2010). Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko. Hiznet, hizkuntza plangintza ikastaroa.
- Sanginés Saiz, Gemma eta Suay i Lerma Ferran (2011). Hizkuntza mendekotasunezko portaeran eragiteko proposamena: ikuspegi psikologikoa. Hiznet, hizkuntza plangintza ikastaroa.
- Gartzia, Joxerra, Amonarriz Kike eta Egaña Andoni (2004). Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen eta zertarako. Euskararen Aholku Batzordea. Eusko Jaurlaritza.

# ERANSKINAK

---

## Eztabaida taldeetarako. Gidoia

### Sarrera

- Elkarrizketatzailearen aurkezpena
- Proiektuaren azalpenak:
  - o Helburua: Ikerketa honekin azkoitiarrek euskara nola bizi duten ezagutu nahi da. Zer da euskara azkoitiarrentzat? Non erabiltzen dute? zergatik? Ze leku betetzen du euskarak herritarren nortasunean? ...
  - o Teknikaren zergatia: Galdera horiei erantzuteko biderik egokiena jendeari galdetzea eta hitz egiteko aukera eskaintzea dela pentsatu dugu; horregatik elkartu gara gaur hemen.
- Informazioaren anonimotua ziurtatu
- Elkarrizketa grabatzeko baimena eskatu
- Taldekideek beren burua aurkezteko erronda

### 1. Euskara Azkoitian

- Herri euskalduntzat al duzue Azkoitia? Zergatik?
  - o Auzoen arteko konparaketa
  - o Belaunaldien arteko desberdintasuna
  - o Trasmisioa
- Euskal Herriko beste herriekin konparatuz gure herrian euskararen egoera nolakoa dela esango zenuke? Zergatik?

### 2. Hizkuntzaren funtzioak.

- Norekin eta zertarako erabiltzen duzue euskara? Etxean, lagun artean, aisialdian, lanean, udaletxean,...
- Eta erdarak?
- Nola moldatzen zarete erabilera horietan? Zein hizkuntzatan sentitzen zarete erosoago? Zein egoeratan? Idatzizkoa, ahozkoa, euskara batua/ euskalkia,...Zeinetan hobeto?
- Egunerokoa zein dira zuen kontsumo ohiturak? Zein hizkuntzatan? Zergatik?
  - o Telebista
  - o Egunkariak
  - o Irratia,
  - o Internet, sare sozialak...

### 3. Euskal Kultura.

- Zuen ustez zer da Euskal Kultura? Nola definituko zenukete?
- Euskal sortzailerik ezagutzen duzue? eta euskarazko produkturik kontsumitzen al duzue? Bertsolariak, musikariak, idazleak,...
- Ze iritzi duzue sortzen dutenaz? *Atseginak, onak, aspergarriak*,...
- Herrian zein talde, herritar, ... lotzen duzu euskara eta euskal kulturarekin? Zergatik? Zer iruditzen zaizue Azkoitian eskaini eta programatzen dena? Udala, taldeak, elkarteak,...

### **Eztabaida taldeen, gidarien ezaugarriak:**

- Taldekideen artean eztabaida eta iritzien trukea ahalbidetuko duen giro lasaia sortzea.
- Gidoia ez dugu era zurrunean jarraitu behar.
- Hori bai, gidoian agertzen diren gai guztiei buruz hitz egiten saiatuko gara.
- Eztabaida era egokian hasi.
  - o Egon daitezkeen zalantza eta susmo txarrak hasieratik ekidin eta taldekideen konfiantza eta interesa ziurtatu.
  - o Taldekideen jakin nahi dezaketen edozein informazio eman.
- Taldearen kezka, nahi, arazo eta beharrekiko sentsibilitatea adierazi. Taldeak eztabaidan zehar egiten duen ibilbide bera egin behar du moderatzaileak.
- Nork, zenbat denbora eta noiz parte hartuko duen erabakitzekeo gai izan behar du. Hitza eman eta kentzen jakin behar du.
- Neutrala izan behar du.
- Parte-hartzeak edota eztabaidatzen diren gaiak bultzatzeko, oztopatzeko eta bizkortzeko gai izan behar du. Garrantzitsua dena eta ez dena eta sakondu behar dena eta ez dena desberdintzen jakin behar du.
- Moderatzaileak galderak egin behar ditu, baina galdera horiek ez dute epaiketa edo azterketa baten itxura hartu behar.
- Moderatzaileak eztabaida gidatzen ari dela erakutsi behar du, batzutan ahozko komunikazioaren bitartez (hitza emanez edo kenduz...) eta beste batzuetan ahozko komunikazioaren laguntzarik gabe (hitz egiten duen pertsonaren begietara begiratuz, eskuekin hitza emanez edo kenduz, buruaren mugimenduetarekin ulertzen ari denaren itxura emanez...). Dena dela, **ez du ebaluaketarik egin behar.**
- Ekidin beharrekoak:
  - o Pertsona batek edo bik eztabaida monopolizatzea
  - o Isiltasuna nagusitzea
  - o Taldea moderatzaileak kontrolatu ezin dituen talde txikietan banatzea.
  - o Eztabaida gai bakar batean finkatzea, eta hortik ez ateratzea.
  - o Eztabaida emozioen (amorrua, haserrea, zoramena, pesimismoa,...) arabera zuzentzea eta ez deskripzio eta informazio zehatzen arabera. Emozioak agertzen direnean zergatiak galdetu.

**Eztabaida amaitzeko.** Zerbait gehiago gaineratu, argitu edo komentatu nahi duten galdetu taldekideei. Esandako gauza garrantzitsuenen eta adostasun eta desadostasunen laburpena egin eta taldekideen parte-hartzea eskertu.